



KARDABERAZ

7, 8 ta 9

Nun zer:

I.—KARDABERAZ BAZKUNA:

Bazkunaren Kondairari buruz: On Manuel'i buruz 1-16

II.—BATZAR-AGIRIAK:

1978-1-28'ko Batzar-agiria 17-24

III.—KONDAIRA:

Kardaberaz Bazkunaren Kondairarako diru-bilaketan 26-32

IV.—ARTU-EMANAK:

Euskerazaintza ta Kardaberaztarren arteko artu-emanak 33-37

V.—EUSKERA:

Euskerazaintzaren legezlatze-pausoak. 39-48

VI.—ASMOAK:

Errikide-Idazleli ametsak 49-58

VII.—ARGITARATZEAK:

Liburu ta iztegien argitarapena 59-72

VIII.—BAZKUNAREN BIZIA:

Bazkide berrien biltatze-bidetak: Diru-sarrera-irteerak 73-80

IX.—SAIOAK:

Kardaberaz-Batzordearen saioak 81-87

X.—OMENALDIAK:

On Manuel'i ta Zipitria Andereñoari egindako omenaldiak 89-93

1977
1982

KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akasolo, Onalndia eta abar).
- 2.º **NEURRIZTIA**
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
- 3.º **SUGE GORRI**
(François Mauriac - Uxola). 15 x 21: 167 pg.
- 4.º **ESPALAK**
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
- 5.º **AITONAREN IPUIAK**
(Ramón Murua).
- 6.º **ERREKA-ZULOAN eta...**
(Anastasio Albisu Ayerdi).
- 7.º **1. KOMEDIAK-SHAKESPEARE**
(Larrakoetxea, Bedita).
- 8.º **LANDARE-JAKINTZA**
(Larrañaga, Gillermo).
- 9.º **GARTZI-XIMENO eta...**
(A. Albisu Ayerdi).
- 10.º **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**
(Anastasio Arrinda Albisu).
- 11.º **2 - KOMEDIAK**
- 12.º **3 - DRAMAK**
- 13.º **4 - DRAMAK**
- 14.º **5 - TRAJEDIAK**
- 15.º **6 - TRAJEDIAK**
- 16.º **1. GRAMATICA VASCA «UMANDI»**
Método para aprender y enseñar el idioma vasco.
- 17.º **2. GRAMATICA VASCA «UMANDI»**
Modismos - Vocabularios - Clave de temas.
- 18.º **TXIRULIRUKA**
(Loidi'tar Paben).
- 19.º **I.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
- 20.º **II.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
- 21.º **III.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
(Colaboraciones)

I

Kardaberaz - Bazkuna

(7, 8 ta 9'gn. ALDIZKARI ALEA, 1978-1980)

*Atzeratutako aldizkari-ale auek Bazkunaren batzar-
agiriekin osatzen dituzte.*

*10'garren alea, Euskerazaintza'ren IDAZTARAU
BATZUK osatu-ta bialdi zitzaitzuen.*

*Eta laxter izanen dezute, 11, 12 ta 13'garren aldiz-
kari-alea ere (1982-1984 urteetakoa). Euskerazaintzaren
sorkera-bideak izanen ditu bere gaitzat.*

*Barkatu bere garaian jaiotako ez diralako. Eta, ea
urrengotik arian jartzen geran...*

AZKOITIA'N 1977'GO ABENDUAN

Kardaberaz'tar Adiskide.

AGUR :

Kardaberaz-Bazkunaren urrezko-eztaiak zirala-ta, orain iru urte asi giñan esaten, omenaldi aundi bat egin bear geniola gure On Manuel'i. Ta ez genduan ortarako, bere idaz-lan guztiak argitaratzea baiño gauza ederragorik ikusten...!

Zerbait-geiago ere, nai genduan ordea. On Manuel'en idazlanak atari eder bat bear zuten. Eta atari ori, On Manuel maite zuten era-guztietako idazleak gertatuko ziguten ederkien. Eta alaxe gertatu digute ere. Ta or dauzkagu gaur, idazle oien lanekin osatutako iru liburu eder. Eta bereala izango ditugu On Manuel-berarenak ere...! Eldu da ba, Euskadi'k zor dion omenaldia egiteko ordua...!

Kardaberaztarrok zor diogu geienbat ordea, ta orregatik erabaki degu ere, Kardaberaztarrok egin bear diogula lenengo omenaldia, gure sortzaille ta gure lendakaria bera degunez...

Orregatik, eta aurtengo gure BATZAR NAGUSIA orixe izango da: Kardaberaztarrok, Kardaberaztar-bezela, eskeintzen diogun omenaldia. Iñork ez dezala bada, uts-egin...!

Eta ona, orain, emen, egun ortarako gertatu degun egitaraua :

- 1.— BAZKUNAREN KONDAIRARI BURUZ esango digu zerbait idazkariak.
- 2.— ON MANUEL'I BURUZ Barandiarango On Joxemiel'ek.
- 3.— ON MANUEL EUSKALTZAIN izango da Aita Lino Akesolon Lana.
- 4.— IDAZLE ESKOLA TA ON MANUEL, Berrondo'tar Pedrorena.

5.— ON MANUEL AOZKO LITERATURAREN ZUZPERTZAILLE TA LITURGI EUSKERAZLEEN BURU BEZELA agertuko digu Gaztañaga'tar J.

6.— ERTI-LANEN ZELATARI BEZELA Agirrebalzategi'tar J. Marik.

7.— ETA ON MANUEL'en OMENALDI-LIBURUEN gora-be-rak emango dizkigu azkenean Elozegi'tar Jesus'ek.

Baiñan ez ikaratu lagun. Izlari bakoitzari ez baitzaio ordu-laurden bat besterik emango.

Ondo dakigu, ez ditugula emen On Manuel'en duintasun guz-tiak ikutzen, baiñan ez degu aaztu bear ere, lagun-arteko omenal-di bat degula gaurko au, ta lagun-arteko legeak ez dirala ain es-tuak izaten.

Tolosa'ko Iparragirre zine-aretoan ikusi nai zaitugu bada, ill onen 28'an eta goizeko 11'tan. Eta nola ez...?, egun ortan alkarre-kin bazkalduko degu geienok. On Manuel mai-buru degularik.

Eta beste bi oar bide batez:

1.— Urteko ordain-sari truke liburu auek jaso al'izango ditu-zula Tolosan, Loidi'tar Paben'en TXIRULIRUKA, SHAKESPEA-RE'n DRAMAK Larrakoetxeak euskeratuak, Umandi'ren EUSKAL-BETEKIZUNAK, eta oraindik jasotzeko zaudetenok KARDABE-RAZ 5 ere bai.

2.— Omenaldirako argitaratu diran liburuak erosteko egoki-tasuna ere izango dezula. Ta dakizunez, eta bazkide zeralako, irar-kolako prezioan emango zaizula zuri liburu oietako bakoitza.

Eta besterik gabe agur. Abendua'ren 28'rarte Jaunak Lagun.

Albisu'tar Anastasio

IDAZKARIAK

TOLOSAKO IPARRAGIRRE LIBURUTEGIAN,
1977'KO AGOSTUAREN 4'AN KARDABERAZ'TAR BAZKUNAK
EGIN ZUAN BILTZARRAREN AGIRIA

Tolosa'n, 1977'ko Agoztua'ren 4'an, Batzorde Nagusian bildu giñan Kardaberaz'tarren izenak:

Lekuona'tar On Manuel
Arrinda'tar Anastasio
Garmendia'tar Juan Joxe
Onaindia'tar Alberto
Onaindia'tar Txomin
Ayerbe'tar Inozenzio
Latiegi'tar Bixente
Olazar'tar Martiñ
Garmendia'tar Martiñ
Elozegi'tar Jexux
Oñatibia'tar Imanol
Otamendi'tar Joxe Mari
Dorronsoro'tar Jokiñ
Labayen'tar Antonio Maria
Murua'tar Erramun
Urrestarazu'tar Andoni (Umandi)
Garmendia'tar Joxe
Aizarna'tar Santiago
Toledo'tar Nekane
Sukia'tar Joxe Mari

Ta Albisu'tar Anastasio'ren eziñ-etorriaren aditzera, jaietara-turik zaigulako. Bereala, idazkari-ordekoztza Sukia'ren gaiñ utzi ta eguneko jarrai-lerroari eman genion esku:

1.— Otoitz-agurraren ondoren, On Manuel'ek Agertu zion be-re biotz-samurraren esker-ona Kardaberaz Bazkuna'ri, argitaratzen dizkion omenaldi-liburuagatik... Eta Jainkoa oso eskertu bearrean

gerala adierazi ere bai, liburu oiek dirala ta ez dirala, agertu diran ainbat eta ainbat idazkariegatik!... Bestela, ez bait zuten, eunda sekulan, idatz biderik arkituko... Ori dala-ta, urarentzat erretena bezela, omenaldi au idatz-bide gertatu da asko ta askorentzat. On Manuel'en iritziz, bere lanen lenengo liburu «AOZKO EUSKAL LITERATURA» eta omenaldiko irurak batera aurkeztera izango litzakela onena.

Orrenbestez, Garmendia'tar Juan Joxe'k eldu zion jarrai-bideko ariari, goizeko amarretatik agardiko ordubaterañoeko saioan.

Bere asmoak : On Manuel'ek Euskera'ren alde egindako lanak izen berezi-berezi bat merezi duala ta aurkezmen-era jator bat eratu bearrean gaudela :

Kardaberaztarren nortasuna azaltzeko garaietan gaudela : Gazteiz'ko Apaiztegian 1924'an, egindako azitxoa!... Ainbeste urteen buruan, ia illean, laiotzpean biziari eutsi ta 1970'gn lur herritua, garatan zaigula!... Ta, orain, azitxo garatueratzalle ta zaindariaren omenez egin diran iru liburuaz gaiñera, bere-beraren lan-gaiez betetzen diranakin, Euskal-Erri osoari, On Manuel'en jator-bidean, Kardaberaz-Bazkunaren nortasuna azaltzeko garaia iritxirik degula, beraz... Burutik joandakontzat artzen gaituztenen aurrean, edota Leffebre'ren morroitzat gauzkatentzat, azalgai eskeñi gentzakela argi-bide ori : Jakin dezatela, Euskeraren euskera zaleak bizi dirala, oraindik, eta, gurasotzarik gabeko gurasotza azaldu nai dutenei, baita erakutsi ere, Euskera zaarrak ba dula euskerazko puja berririk, eldu ere baitzaiola garaia, bidez aldatu bearrik gabe, aurrera sasotutzeko.

Zein bideetatik erabilli, ta eraman aurkezmen oien ariak? Euskal-Erri nagusienetatik asi-ta, noski : Bilbao, Bayona, Gazteiz eta Iruña ta Donosti.

Nola ta noiz?... Zein ate joaz? : Izparringi, Aldizkari, Erri-Irrati, ta abar... Noiz? Aurtengo udazkenean : Urria'n? ...Lenengo azal-aldia Donostia'n izango litzakela.

Erabat ontzat eman zan amets-asmo au.

2.— Satorkeriak satorrentzat utzi ta, goitik beera, zearo asko, agertu zizkigun Juan Joxe'k liburuen agerpen-bideak :

Kardaberaz 5'gna, Loidi'tar Paben'en TXIRULIRUKA, —agarretik-agarrera, ttattoka-ttattoka zuzendutakoa—, olerkidi goxo-goxoa!... Txoria izan nunbait gure lagun zaar Paben!... Eta Txanxangorriaren antzera, kukuarentzat kabilari!... Aurrera, beti, ta Jainko-arnas orri eman ire biriketako aize garbia, aspertzeko, Igel-do'ko kaiolatxo orretan!...

Lekuona'tar On Manuel'en omenezko idazki —bildumak iru liburu ale burutu dituztela. Esku artean, gozatutxo bat eman ere egin genizkien...

Eta bere lanen «AOZKO EUSKAL LITERATURA», lenengo ale bezela txapeldurik dagola, ta bidean aurrera dijoatzela beraren beste lau-bosteak ere : Erriakintza, Ertia, edestia, Olerkiak, Irizkatak, t. a...

Arbelaitz'tar Juan Joxe'k On Manuel'i eskeñitako tesina : ETIMOLOGIA DE PALABRAS VASCAS EN KOLDO MITXELENA, —Iztegi antzean—, omenaldi liburuen eraskin izango dala.

Berdiñ eta Garmendia Arruebarrena'tar Joxe'k On Manuel'i eskeñitako IZTUETA'REN OLERKIAK ere azken orrazketan dabiltzala.

Umandi'ren «EUSKAL BETEKIZUNAK», bere Gramatica Vascaen osamena ere loratu dala.

Orañ, ager-bidean zuzenduta daudenak, berriz : On Manuel'en beste lau-bost oiek. Karmeldar Larrakoetxea'tar Aita Hipolito'ren ELEIZAREN LEGEDIA (Derecho Canónico), Akesolo'tar Lino'ren orrazipean txukuntzen dagoela, Praillediaren laguntzeskeintza ere bai omen du argita-bide zorren ordainketarako.

Eskolapio Mokoroa'tar Aita Justo'ren lan ederra ere ba dijoala bere bidean : Euskerazko Esaerak (au ere Iztegi-bidean eraturikoa izango zaigu).

Mokoroa jauna bildur omen dala bere zaartzaroak betarik ez ote dion emango lan osoa burutu arte... Ta laguntalle eske-antz bat ere adierazten duala, bere artekotan bear ainbat giro-itzal ikusten edo nabaitzen ez dualako Jarraitzalle leikenari, ziñelari itzalez, bideramen bat eskeintzera ondo ez ote legoken zalantz pixkaren azaldu-naia ere ikusten zaiola... Bere lantxoa lapurtuko ote zaion iruipentxoa?... Nai giro aundiarentzat arnasatxoak indar gutxi?...

Ondoren, Juan Joxe'ren eskabidez, Umandi jaunak egin zigun bere NORABIDE eta Cassette'n agermen bat: euskera ikasteko bide bat, alegia.

Ta era orri bideak urratzeko, nora-bideak eta ikaskaiak galar-tzutu egin dituala: aundi ta txikietan. Ikaskai ta nora-bide oiek zortzi galartzu (zinta) aunditan sartu dituala. Donosti'ko «Radio Guipuzcoa'n» bete dituala. Gero, zortzi oietatik, amalau galartzu txiki beteko dituala, ta oso laxter ala ere, Bilbao'ko etxe batean. Bidean dirala, beraz. Bere bi liburuen erakusgaiak 84 ikaskaietan sartu dituala.

Galartzu txiki bakoitzean sei ikaskai, —alde bakoitzeko iru—, 90 minutuetakoetan. Eta galartzu txikien ordain-saria 217 laurleko-tara igotzen dala; aundiena, berriz, 2.400'taraño, bakoitza. Txiki bakoitzetik 40 egitera erabaki dutela: Beraz: $14 \times 40 = 560$ guzira.

3.— Juan Joxe'k beste azalmen zoragarri bat ere egin zigun: Gaztetxuen Filme batzuek euskeratu ta euskeramenean betiko sar-tzeko aukeramen bide bat. Erbiusaiak zakurrari isatza bezin tente jarri zizkigun belarriak berri orrek. Amets aunditxo ez ote?... Ez... ez... Egi-bide oso-oso zekarkigun, zalantzatan uzteko!...

JUVENTZA S. A.'k (Zine-pelikulak zabaltzeko elkarte-etxea-ren izena) emango liguken bide jator bat. Aukeramen-eskubideta-suna, munduan zear, umientzat pelikula edo Filmek biltzeko bere-kin duena.

Filme oiek, euskerara biurtu ta euskeratzeko trebetasunaren jabe ezagutzen ba gera, Kardaberaztarren izena josirik luteke be-ren aurkezpen guztietarako. Era oberik nun, lanaren bitartez, ize-naren izantasuna biziro agertzeko?

Filme oien idurizketa (agerneurria) 8, 16 ta 32 milimetroko-tara irudizkiñeratuak izango lirazke. Beraz, Erri Nagusi ta bitar-teko aretoetan ezik, erririk txikiñetan ere izango luteke almena; euskaldun guziak jabetu ditezen nundikakoak dituzten...

Orretarako, FIDES eskuratzallearen bitartez, ezereen eragozpe-nik gabe, ta zorbide ta ordainketa-buru-austeak bere alde dituala, Juan Joxe'k jarri ditzazkela gure eskuetan Filme oien gora-beerak...

Orrela izatekotan, Oñatibia'tar Imanol'ek bereala eskeñi zuan biurtzalle talde baten arrastoa euskeramenerako. Amabost egunen buruan, zuzendu eziñik etzeukala, naiz oraingo, Madrillen edo Barcelona'n gertatu bearrekoa izan biurketa. Gerorako, errezago-bideak saiatu bear dirala emen: Euskal-Erria'n bertan egin al izan ditezen biurketatze oiek.

Ta, oraindik geiago ere bai, dio Oñatibia'k: Beñ euskerara biurtu eskero Filme oiek, aurkeztu leizkeela, baita Urrut-Ikuski-ñez (Televistaz) ere. Ba dagola baimena ori egiteko.

Eta, beñ orretaraño iritxi ezkeru, elkartasuntzak dituan ar-eman bide guziak urratu gantzazkela: irrati saioak dirala t. abar...

Izan-bide berri onek oso usai gozoa astindu zuan batzarkideon artean; eskerrak, gozalmen gogoz, eman ere bai gure Juan Joxe eta Oñatibia'tar Imanol jaunei.

Ara ba da or, noraño-koa leiken gure gaurko jokabidea, gure Euskera eta Kardaberaztarrentzat! Ez dezagun aaztu, guzion es-kuetan daukagun izate aundi au! Danona danez, danon laguntza ere bearrezkoa.

Gure erantzun baiezkoak itxi zion atea.

4.— Eta, orrenbesterekin, Juan Joxe jaunak Elozegi'tar Je-sus'i eskeñi zion itzbidea. Bere etengabeko lan saioan ba dula-ta zer azaldurik onek ere. Onen lana ordainduko duan dirurik ez dala jaio, zion Juan Joxe'k. Eta egi aundia, alajaiñetan. —Oieta-ko lan batzuen izenak, Jesus'ek berak azaldu alan, ara emen:

— Kardaberaztarren pillatutako liburuen izen-zenbaketatzea egiñik duala.

— Liburu oien sal-neurrimena 1.600.000 laurlekotaraño irix-ten dala.

— (Ba dago, beraz, esnea nun jetzia, liburu oiek saldu ez-keru!...).

— Etxegintzalle lagun batek, Irura'n duan lantegi-tresna etxean, liburu ordaindu oientzat gorde-leku eskeinketa bat ere ba duala.

— Baiñan, naiz aurrenetik utsean eskeñia izan gorde-leku ori, geroztik, lagunak idatzi bat bidali diola beste jokaera berri bat egiñik izan eta argitaratzeko laguntza bearrean arki-bat egiñik izan eta argitaratzeko laguntza bearrean argitzen!... Eta baten-batek jabetu ere, noski, On Manuel eta Jesus'ek Donosti'ko Aurrezki Kutxarekin duten artu-ema-na, ta, bitartekotasun ori lortzeko, maatilla jarri, alegia...

Baita, irakurri digun eskutitzez, bitartekotasun orri neurri garaia jarri ere: «SAGARDOA argitaratzeko laguntza irixten ba dio, aurtengo Eguarritarako, irulau bat urteetarako, anaien izenean, idazkatuko diola esandako liburu-tegirako baimena.

Giza-usai kaxkarreko idaztia iruditu zitzaion batzarrari idazti ori. Ta, berealaxe, baita Galarraga'tar Luis Mari'k, —baldin Gotzaiak eragozpenik jartzen ez ba zion—, eskeñi ere gela bat, gauza orretarako, betiko eta utsean gañera, bere Donosti'ko Loyola'ko Eliz-etxean. —Eskerrak eman bearko orrelako biotz duten gizonei—.

Elosegi jauna, egun asko baiño len azalduko zitzaiola, begiz ikusi ta nolako eraketa egin leikean jabetzeko. Ta aurrera:

- Orduan, Jesus'ek beste gogo bat ere agertu zuan: Zaartzaroa artutakoen artean, bateen bat izan ote leiken, bere laguntzalletzat, —lanaren truke—, edo —lanaren alde—, baiñan, gora-beera auetan laguntzalle ditekena. Etzuan erantzunaren zai egon bearrik. Galarraga jaunak, lana Donosti'an gertatzekotan, olako gizona ere billatuko zion, ustea ba zeukala. —Berriz ere eskerrak eman egin bear, bada Luis Mari'ri ta pozik ala ere...
- Jesus'ek beste amets baten egun-sentia ere azaldu zigun, amets loratuan, gaiñera: Donosti'ko Aurrezki Kutxaren laguntasunez argitaratu-ta Kardaberaztarren izen-abizen eta oraiñ arte argitaratutako liburuen agiri eder-eder bat, On Manuel'en argazki dotorearekin itzalpetua. Ta ori zertarako? Bazkide berrien uxarketa astintzeko. Bideak zerbait urratu ere bai asmo oietan: Mujica'ren Iztegiko (Diccio-

nario) arpidedunen zuzenbide ta Euskal-Eliz Barrutietakoa-kin osatu-ta, Bazkunaren baimenaren zai zabalkundetza as-teko.

- Egintz orretarako giro-aldirik onena agorra'ren erditik atzerakoa jotzen zuela, —uda aldi onetan asko ta asko jaietari izaten bait dira—, bestela orri oien esan naiak surtan edo gal-saskian lotaratu bearko lutekela-ta.

Orrela eratutako lan jator ori, nola batzarrak ontzat ez artu?

Izen-zuzenbideak jarri besterik ez dutela, apainduak daude txartel-agertzalle oiek. Oso erreztua, beraz. Eta batzarkide berriak sumatu ta bazkideak ugaritzeko berealako-xea. Aurrera, orduan.

Jesus'ek bukatu zuanean, Juan Joxe'k eldu zion, berriz ere, ariari... Ain izan degu izkille la ametslari, gaurko onetan!... Diru bideak ditu oraingo ametsak:

- Oraiñ arteko zorrak bazkideen laguntzarekin ordainduak izan dirala.
- Aurtengo bazkide-liburuak: Kardaberaz 5.gna. Loidi'ren TXIRULIRUKA ta Shakespeare'n Drama ta Tragediak osatzen dutela.
- Ba dirala, ordea, bazkideak ordainketan atzeratuak eta bearbearrezkoa dala, danok jabetzea, laguntza oni errextasun apur bat geiago emateko, ta salmentan laguntza pixka-pixka bat egitea ere oso egoki ta bidezkoa litzakela gure Bazkunarentzat eta gure Euskera maitearentzat.
- Orain, esku artean dabilzkigun liburuen ordainketaz: On Manuel'en omenaldiko irurak, Kardaberaz 5.gna, Uman-di'ren EUSKAL BETEKIZUNAK, On Manuel beraren laubostak 1.500.000 laurlekotara iritxiko dirala. Ta, oien inguruan, beste 600.000 laurleko, gertu-gertu, ibilliko dirala, Garmendia'tar Joxe'ren Iztueta Olerkiak, Larrakoetxearen Eliz Legedia ta Mokoroa'ren Euskerazko Esaerak eka-rriko dutena. Guzira jo-ta milloi bi, ortxe-ortxe.

Gero, buruko miñak ta kezka kentzeko, Juan Joxe'k dirutzara bide batzuek ere agertu zizkigun :

- Kardaberaz Bazkunak, liburugintzan aurrera jotzeko, lezazkean ate ta maatillak, alegia :
- Elozegi'ren zabalkunde asmoak loratzeak, —lanaren-sari—, ordainketa bide bat sortu deigukela.
- Zeozerren eskabide, naiz ordaintzarik gabekotan (a fondo perdido)..., egiteko lain izan ta nagusitasunakin arkitzen gerala.
- Baita, irabaz-sarian sartu gabeko, bazkideen arteko diru aurreratze bat ere.
- Edota, Bazkunaren izenpean, iru-lau urteen buruan ordaintzekotan, % lau-bosteko irabaziarekin ere bai.
- Gañera, Euskadi'ko Diru Aurrezki Kutxak ere, beren Kuxtaen izen-jantziari, Bazkunaren liburuetan amore emanaz, diru bidea irikiko ligutekela, —alegia, orretaraño beartu ezkerero.
- Azken bide oni buruz, Latiegi'tar Bixente'k Bitori'koen atea joko zituan asmoa eman zigun.

Batzarrak nola ez onartu Joan Joxe'ri bere amets-bide ta argi-arrasto oiek, bide-zail garaiarako orrenbeste errezteko atea erakutsi ta gero?

Zabalkundetzak saltzalleak ere eskatzen dituala, zion Oñatibia'tar Imanol'ek. Bear-bearrekoak diralako bizi-bide jator bat Kardaberaz Bazkunari osatzeko. Ta, orretarako, lege-bidean sartzea ere oso ongarri iruditzen zitzaioela : Jakintz-Elkarte (Cooperativa cultural), naiz-ta beste olatsuko izenpeko batean. Shakespeare'n itzulpenak ere salbidetu leizkela munduko Unibersitatetara eskeñi ezkerero. Jakintz-etxe Nagusi oien zuzenbideak Deustu'koak emango liguzketela —Olazar'en eskuetan utzi zan zuzen-bide oien lortzea.

Baiñan, liburu oiek era orretara saltzeko, azalmen-txartelak izkuntz geiagotaratuak bearko ditugula, noski.

Azkenik, Joan Joxe'k esanik ere zigun onoko beste au : Gotzai On Jazinto'k, aurreko egunean, galde egin ziola Va-

tivano II'gn Batzar Nagusiaren idaztien euskeratzea, bere itur-buruaren esan-nai ta giroaz ondo jantzirik-koa dan. Biurtu edo itzuli ta gero, Teologo ta beste maixu jakintsuen ustetan, ala zala esateko, agindu zitzaion.

Eta, dana osatzeko, Dorronsoro'tar Jokink'ek : Barandiaran'tar Joxe Migel'en Bizitz Agiri liburua ere euskeraturik dula, adierazi zigun.

5.— Orrenbesterekin, —noipait bear eta, iritxi giñan DEIA egunkariaren larrura. Berriz ere Joan Joxe : Kardaberaz Bazkunari, bizi giro obego bat emateko asmoetan, Ibarrondo'tar Edurne'rekin DEIA egunkariko atetaraño sartu zala. Kardaberatarrontzat orri-alde oso baten billa..., gure erri-euskeran izatekotan. Eta eman zion erantzunez, eragozpenik etzegoela edozein euskalkietan idazteko. Ugalde'tar Martiñ'en eskuetan dagola ori ta berarekin zuzendu bearko giñuzela bide oiek. Baiñan, orri osoaren gertaketa orrek 50.000 laurlekoen ordainketa sortuko zigula, noski.

Juan Joxe'ren agermen onek ezta-bai aundia sortu zuan batzarkideon artean. Azaldu ere bai DEIA'ko euskerakerea dala-ta dabilzan burrukak!... Ez zala, beraz, Ibarrondo'k uste duan beziñ errexa DEIA'ko euskera bidea.

Batzuek ziotenez, H ta Euskera Batuaren zale utsak dirala izparringi orretako euskalariak. H'rik gabe bialdutakoak ere Hz. jantzita atera dizkietela bati baiño geiagoeri ere. DEIA'ko arduradunen iritzia naiz bestaldekoa izan, DEIA Euskera Batuaren mendean bizi dana dala.

Arduraduten alderditarrak naiz gipuzkoera osotuan izango zala adierazi, DEIA'ren arnasa beste ostape batetik dabill.

M. Zubiria'n iritiziz, Ugalde'ren berekoikotasunak, inork uste baiño leenago, ekarri dezakela aldaketa bide bat.

Alkar-izketa luze-luze baten ondoren, erabaki onetara jo genduan : Zeru'ko Argiakoak daukatela DEIA'ren zartagi kirtena, oraingoz, —euskera kontuan, beintzat. Batzarkide batek : euskal idazlarien billa dabilzala, zion, eta inork ez laguntzea litzakela, baztartzeko, biderik motxena.

Dana-dala, dagoeneko, DEIA'ri, darabilen euskerak, irakurle

asko oztu diola, ta, erabat baztarrera utzi dutenak ere ba dirala sail bat.

Dana entzun da gero, beste batzarkide batek : emen azaldu diran akats ta giza-bide kaxkar oien goora-beerak DEIA'ko Zuzendari Batzordeari aditzera ematera litzakeela onena. Eta, bere uste-tan, —ezagunak zaizkiola zuzendari batzorde orretakoen gogo ta asmoak euskera kontuan—, Euskeraren bide naastu orien garbiketa egingo ez dutenik ez dula uste.

Besterik gabe, bein eta berriz ere, esker-bidea aaztu gabe, ibilli ditugun lan eta asmoak onarturik, noizpaitean, ipiñi ere ipiñi genion bukaera, egun onetako Kardaberaztarron billerari.

Ziranak dirala, zin dio.

Sukia'tar Joxe Mari'k

II

1978-1-28'AN BILBAO-DEUSTON KARDABERAZKO BATZUEK EGINDAKO BATZAR-AGIRIA

On Manuel Lekuona'ren omenaldi-eguna antolatu bear zala bizkaitarrentzat eta Deustoko «Unibersidade» edo Jakintz-Ikaste-txe Nagusian elkartu giñan :

Mañarikua'tar Ander Eliseo, apaiza

Arenaza'tar Josu, sendagillea

Olazar'tar Martin, apaiza

Akesolo'tar Lino, kalmeldarra

Zubiri'tar Iñaki, injenieroa

Garmendia'tar Juan Joxe, apaiza

Pueyo'tar Rita ta

Sukia'tar Joxe Mari, apaiza, batzartxo onetako zindari.

Arrinda'tar Anastasio ta Latiegi'tar Bixente ere, elkartzeko-tan arren, ez ziran azaldu. Oien zai alditxo bat agortu ondoren, eman giñion asera gure billerari.

Garmendia'tar Juan Joxek adierazi zuan Tolosan kardaberaz-tarrak (Bazkideak) Abenduaren 28'an, On Manueli egin zioten omen-aldia, lagunkide arteko omenaldia, alegia, bazkari ta guzti.

Orain, Erri-omenaldia eratutzeari eldu nai diogu, Euskalerrriak izan duan euskaldun eta euskalzale ta maixu jatorrarentzat, —eus-kal euskaldunik bizkorrenetako onentzat. Orretarako gure ametsak :

Euskal-Erri Uri Buru guztietan (Gazteiz, Bilbao, Donosti, Iru-ña ta, mendiz bestaldekoentzat, Bayona edo Donibane'n —iritzi au ontzat artzen ba-da, beintzat) eratzea jotzen degu : On Manuel, euskaldun guztientzat, euskaltzain zintzo-zintzoa izan zaigulako be-ti, urratu du, aspalditxo onetan, bere euskal biotza!... Izan ere, ainbeste euskaldun bai al dabilta, euskal bide garbiak utzi-ta,

lokazti, gure izkuntz ederra, lotsa-bideetan sartzen ari diranak, Euskera berena ba'luteke bezela!...

Beraz, bidezkoa zan, eta Kardaberaztarrok, On Manuelen idazki guztiak, amar bat liburu inguru, argitaratzea erabaki genduen. Idazki banatu oiek, gaiez eratu-ta idazkolaturik ditugu geienak. Azkeneko ondarrak zuzendutakoan, amar bat liburu osatuko dituzte, beintzat, kardaberaz-bazkideek eskeñi diogun iruaz gañera. Oraindik ez dakigu ziur noizkorako eldu edo loratuko diran, baiña, bitartean, gauzak eratzen joatea egoki litzakela derizkiogu, ta orretara gertatu gera gaurko egun onetan emen.

Erakuntza onetan, —esan bearrean gaude—, ez gerala umezurtz: Barandiarango On Joxe Migelen itzalpe bikaiñean gabiltzala, bere izenpe ta itzal aundiaren babesean, ain zuzen.

Liburu oien idazkolatze ta omenaldi eratze auek ez dira aunzaren gau-erdiko ezitulak. Gureak baiño txanpon-bide aundiagoak eskatzen dizkigute. Gaur-gaurkoz, alegiñean ari dan Kardaberaz Bazkunarentzat amets aunditxo, noski: gutxienez, lau-bost milloi laurleko larratzeko bideetan sarturik bait gaituzte!...

Orregatik, Tolosako azken batzarrean, besoa luzatu bearrean giñela ta ametslari esnatu giñan...: On Manuelen Euskerari euskaldunen arrera ona esnatzeko bideak eratu bear zitzaiola ta orretarako liburu-azalketa ori eratu ezetz, ezagun-bideak ere jarri bear genizkiogula.

Bear-bearrezkoa litzakela, beraz, Euskal-Erriko Jaun Buru, Aldun eta Diru-Kutxen laguntza billa jotzea, gauzak bear bezelakoak izan ditezen.

Egun aretan bertan, inguru maiko Latiegitar Bixentek bertatik asiko zala Gazteizen; eta beste Urietan ere bideak eratzea onartu zan.

Orretarakoxe bildu gera, gaur, gu emen: Bilbaoko Urian, omenaldi orren laguntza ta bideak nola eratu ta antolatu erabakitzeroa.

Asmo auen herriekin, esandako idaztiak askatu ta irakurri ziran: Aldunari ta diru Kutxa bieie eratu zitzaizkienak, Gazteizkoetara eramane diranen berdiñak eta esan degun bezela, On Joxe Migelek izenpetuak.

Eskutitz-eskalari auek ontzat artu ziran eta ezagun-bide ona-

ren jabe diran Zubiritar Iñaki ta Oleagatar Iñakiren eskuetan gelditu ziran. Oiez gañera, zenbatekin zezaketen lagundu, zionari, milloi erdi banakin laguntz ederra egingo zutela Kutxa biak eta milloi batekin baita ere Aldundiak. Zenbat-bidearen arrasto-naiekorik ba zan, ori izan zeikeala erantzunetan bat...

Bizkaiko Aldundia ordu txarretan bizi zala, zion batek. Zorrez beterik zebilela eta ordainketaetan oso atzendurik; baiña, ala ta guztiz ere, eskatuko ziotela.

Idazki oiekin esku utsean joatea baiño obego izango zala zerbaiten azalgarritxo bat eta kardaberaztarren omen-aldiko iru aleak bialiko giñiela eta On Manuel berarenak ere bai irten alan.

Oraingo omen-aldi auek ondo gertatzen ba giñuzen, agermen aundia emango giñiela On Manueli eta zer esanik ez Kardaberaz-Bazkun eta bere lanari. Ta, aurrera ere, onelako omenaldiak antolatzeak eta ugaritzeak ez liokela batere gaitzik egingo Bazkunari. Kardaberaztarretan ba daudela ainbeste opa lezaiezken gizonik eta idazlerik, adibidez: UMANDI jauna (Urrestarazutar Andoni), bere ale biko «GRAMATICA VASCA», «NORA-BIDEAK» eta «EUSKAL BETEKIZUNAK», galartzu aundi txikiz jantzitakoakin.

SHAKESPEARE'ren itzultzalea: Larrakoetxea Agirrezabalatar Bedita Jon, eta onen anai kalmendar Aita Hipolito: ELEIZ LEGEDIARENA (Derecho Canónico), zer esanik ez herriz.

Eskolapioar Mokoroatar Aita Justo ere ortxen ari zaigu, arnasa artzeko betarik gabe bere «EUSKERAZO ESAERAK» —liburu bikotea zuzentzen. Irureun milla ta geiangoen laburpenekin 96 millatan lotzen ditu esakuntz guztiak. Munduan beste izkuntzik ba da ainbeste dituenik atera ditzala sinisteko. Liburu bikote ori Iztegi-antzero antolatua izanen da, errez-bide ohea izan dezan eskuetarako.

Ba du lanik oraindik gure Aita Justok, banaka-banakan, erakuntz ori bukatu arte!... Gutxienez beste urte biko lana, berak bakarrik lezakeana dalako. Jainkoak eman deiola arnas ta giroa, lapurren eskuetan erori ez zaizkion ainbeste urteetako bere lan eder oiek... Izanik bait ditu alako itz goxo ta judas-dirutxo-eskeintz batzuekin atzetik ibilli zaizkionak ere... Orregatik, ezurretarañoko bildurraz josita dauka bere larrua... Gaurko gure buru auste aueri

astinketa emango dion gizona ere bidean degula, zioten gure bizkaitarrak: Agirretar Iñaki, alduna, alegia: Euskal-Jakintz arduradun izendaturik bait dute, aldunen artean...

Irrati eta Urruti-Ikuskiñ-bideak ere nai-ta nai-ez, izanen dutela eraketarik Euzkadirako, erabat euskaldundu arte. Era berean, baita ere «cine» edo irudi-ikuskiñ-bideak (irudi-izkiñak). Irudi-izkiñaren euskerabiderako, bearrezkoa zaigula, ta asera-aseratik, irudikiñ-itx-ola antolatzea; bestela ezin bait leike Madrid eta Barcelonaarako ibilli aldiatarako naiko dirurik sortu.

Azalmen onek beste bide batzuetako egarrria ere iriki zigun eta baita jo azin ere ainbat alde:

Lenengoa: Euskera ta Euskera-taldeon joerak. —Bizkaiko «EUSKERAZALEAK» eta Gipuzkoako «Kardaberaztarrok» Euskera errikoitarraren aldekoak gerala. Euskera bizirik ikusi nai degunak, bakoitzak bere Euskalki bidean erabat indar-berritu ta jakintz-bide eratu arte. Ta ez degula beste biderik nabari gure gaurko Euskerari eusteko.

Orretarako, ezin gentzake, beraz, ikastol «batuen» gaurko joera onartu. Erakuntz orrek bizkaitarren euskalkia ankar gora dararamaki, ango Erri-Euskerarekin zer ikusirik ez duan eleketa dabilkialako eta gurasoen semeekiko izkuntz-bideak erabat ixten dizkielako; «BATUA» izeneko izkuntzkerak, guraso gabe orrek, ele-kirtena sortzen diela guraso-semeen izketarako, eta gipuzkoarrentzat erabateko basatia gertatzen dalako.

Nai-ta nai-ez, Euskerari kemena ta iraupena ematekotan, aurren lenengo ikasketak erri-izkuntz edo guraso-euskalkietan irakatsi bear dira. Bai!, gizakumeak ez gera «kaiola-txoriak» eta «Batuak» kaiola-txori egiten ditu gure umetxoak!... Jakintz-Euskera osaturako egunak, bigarren maillako irakaskuntzarako utzi bear, gaur-gaurkoz, beintzat.

Euskeraren oiñarririk onena nor bere euskalkian indartzera bezelakorik ez degu ikusten, gaurko gure Euskeraren egoeran. Koldo Mitxelena ta bere jarraitzalleak ba daukate nora begiratu ta nun ikusia, amar urte onetako azterketan, batere buruz jokatu nai ba dute, beintzat...

Euskaltzaindiaren azterketa orretarako, Zubiri jaunak esan zingunez, idatzirik dute eska-bide bat, euskaltzain ta maixu askoren izenpean eta beste gizarte-biltzarren babespean, Euskaltzaindiari adierazteko askozaz ere batasun jatorragoa zala 1936'ko Euskerak zuana. Gaiñera arrezkero azaldu dituzten batasunik gabeko izki ta ots-irudi berritzeak lengoan uzteko, baldin Euskera maite ba dute eta illobiratu gabe eutsi.

Burruka aul oiek dirala-ta, Euskeraren erio-bideak irikitzen aritzea ez da euskaldun izatea, gutxiago oraindik Euskera maite duala esatea. Beraz, orduan gaude; gaizki egiñak zuzentzen asteko ta bata-besteen gogo-naikeriak baztarrera utzia egitazko bidean jarraitzeko.

Euskera-batasun biderako, argirik ba dute noski, Eleizak Euskal-Erriko eleizetarako eratu dituan mezetako eta Orduetako irakurgai eta Otoitzetan.

Ori dana orrela ta euskal-idazleok ere gaurkotu bearrean gaudela, zer esanik ez, noski. Banaka-bideei utzi ta elkartasun giro bat jorratu garaian gaudela, iñolaz ere.

Gaurko askatasun-ots eta bideetan, gaurko jarrai-bideetara ateara bearrean arkitzen gerala, itsuak ere ikusten duan gauza da.

Bigarrena: Ikastola ta Ikastola Nagusirako ikasketa-liburu ta gaiak zuzentzeko: naiz euskeratzeko, naiz euskerazkoak ateratzeko bideak urratzeko egunetan gaudenez, prestaturik nai gaituztela gure ume ta Erriak.

Euskera gaurkotzeko ta gaurko gure izatea euzkalduntzeko, euskaldun bizi nai duenentzat, ez daukagula beste irteerarik.

Euskal-idazlariak jakintz-bideratu ta gertatu gabe ezin geinze gaurko laixtertasunean Euskal-Jakintzaren oiñarri izan.

Beranduturik, beste gabe, otorduratu giñan Landatxuetako bazkideen jolas-ta jatetxean eta, bazkal ondoren, urrengora arterekin agurtu genduan alkar.

* * *

1978-2-6'an asi genduan gure Donostiko omenaldirako bide-urratzea. Goizeko 10,30'tan, Donosti-Erri-Aurrezki Kutzako Lasarte-buruaren izenean, Garmendiatar Jon Andonirekin elkartu giñan, Kutzaren Urbietako Moraza ertzeko liburutegian.

An bildu giñanak: Arrindatar Anes, Lasatar Diego, Garmendiatar Juan Joxe, Sukiatar Joxe Mari idazkari zala.

Juan Joxe jaunak adierazi zion garbi ta larri Kardaberaztarron ametsa: euskal idazleone gaurko egiteko bideak eskatzen duten diru-iturria ta On Manuelen idaztien Euskal-Erriko egitekoa. Baita ere Euskeraren alde egin leizken ainbat gatz-bide: Irrati, Ikuskin, Izparringi, irudi-izkuntz, e. a. —Euskerari au-goza egingo dioten ainbat bide-zaar eta berri, ta oien guztien ondoan, irudi-izkiñola.

Jon Andonik oso arrera jatorra egin zion gure asmoei. Ta gauza aukerak ondo bideratzeko idatzi-laburpen bat egiteko eskatu zigun eta aleginduko zala jabetzen eta bide onean sartzen. Andik, zuzenean, Otazu-alkate ordezkarena jo genduan. Ari ere esan genion gure ibillkeraren berri eta, oso aintzakotzat artu ezik, gogo aundiz agertuko ziela orretarako daudenei, gauzak giro onean izan ditezen.

Jaun oiei ere utzi geñizkien Omenaldirako On Manueli eskeñitako idazleen iru liburu eta On Joxe Migelek izenpetutako eskeñidaztia.

Ondoren, Lankide Aurrezki Kutzara jo genduan. Urrutizkin bidez Mondragonen ostegunerako eraturik utzi genduan alkar-ikus-tea, orretarako aukeratuta daukaten jaunarekin.

1978-II-14'an, goizeko amaiketean, Aurrezki-Kutzako zuzendari: Sistiaga jauna eta, egun berean, eguerdiko ordubata ta erdicitan, baita ere Gipuzkoako Aldundi-Lendakari San Martinekin egin giñuzten izketalditxo bana, gure gogo-naien berri emateko. Garmendiatar Juan Joxek eta Sukiatar Joxe Marik agertu zizkien Kardaberaztarren egarriak: On Manuelen idatz-lan guztiak kaleratze-bideetan ematen diguten buru austeak. Amar ale izanen dira ta zerkin azaldukoaren ondoren gabiltzala.

Itz onak baiño geiagoko armena ta arrera egin ziguten: Aurrezki-Kutzak biotzez neurtuko zutela zenbateraiñoko laguntza eman zezaketen eta aditzera emango zigutela. Aldundiko Lendakariak, berriz, azaltzen ginduzten ale danetatik jabetuko zituala bere liburutegi guztiak.

* * *

Ondorengo egun batean, Garmendiatar Juan Joxek egin zion bere adierazmena, aurrez-aurre, Naparroako Aldundiko Lendakariari ere. Naiz toki zailleko aizetan gertatu, politika bideetan Naparroa eta beste euskaldun Errialdeak, arrera ona egin zion uste-tan etxeratu zitzaigun. Geroak esanen digu noraiñokoa zan aien On Manuel ganako maite-miña.

* * *

1978-IV-11'an, Garmendiatar Juan Joxe ta Sukiatar Joxe Marik Bilbaora jo zuten, Mokoroatar Justori ikustalditxo bat egitera. Egun batzuek aurretik, Arrindatar Anastasio ta Albisutar Anastasiorekin aztertu zituzten, Azkoitian, Euskera-Sariaz aberastutako Estonba jaunaren bi noelak.

Bilbaon, Eskolapio-Lekaimedian, baita jabetu ere Mokoroa jaunak ari zuan lanbide zailletzaz. Larogeita amar milla ipingai (fitxa) tatik 22 milla zuzenduta dauzkala esan zigun, gero elektronikaz zuzentzeko neurri jakiñetako ipingaietan jarri al izateko. Lana txintxo eramane bearrekoa zala, ez zala edozein eratan egitekoa. Ale-giñean jarraituko zuala xuxentzen, baiña gutxienez, beste bi urte joango zitzaizkiola dana eratzeko.

* * *

1978-5-5'an, Garmendiatar Juan Joxe ta Sukiatar Joxe Marik Oyartzungo Alkate jauna ikustera erabaki zuten. Angoxea da Lekuonatar On Manuel eta bera baiño lenagokorik ez leike omenaldi onetan tarte artzeko.

Alkate jaunak oso arrera jatorra egin zigun, baita beren omenaldi giroa agertu ere: angoxe seme jatorra zanik, aiek ere On Manuelen izena Karrika bateri ezartzeko amets eginda zeukatela; eta oso begi onez ikusten zutela gure gizatasuna ta omen-bide ori. Kontuan izanen zutela gure eskaria.

* * *

Ikustatu ditugun jaun eta Bazkun guztietan utziaz joan giñan On Manuelen omenaldiko iru liburu ale eta bere idazkien lenengo ale biak, Barandiarango On Joxe Migelen eskutitzarekin batean. Eskutitz aretan agertzen zitzaizkien Kardaberaztarren On Manuelenganako zor aundi ori: onen ikaskai ederrez Eusal-Erri oso-osoa ornitzea, alegia.

Sukia'tar Joxe Mari'k

III

KARDABERAZ BAZKUNAREN KONDAIRARAKO

1978 — Otsailla'ren 9'an, Arrasate'n izan giñan Garmendia'tar Juan Jose, Sukia'tar Joxe Mari, Pueyo'tar Rita ta laurok.

LANKIDE AURREZKI KUTXAKO buruetako-batekin egon giñan, eta Barandiaran'go On Joxemiel'en eskutitz bat eman genion eskuz-esku.

«On Manuel'en liburuak» argitaratzeko diru-laguntza-eske joan giñan bertara.

Oso-ondo artuak izan giñan, eta «bere garaian jasoko genduala erantzuna», agindu zigun ere.

Garagarrilla'ren, (Ekaina'ren) 13'an, Azkoiti'n izan nituan Garmendia'tar Juan Jose ta Sukia'tar Joxe Mari. BATZORDE NAGUSIA BILTZEKO ESKATU ZIDATEN, eta ona, Batzorde-Nagusikoeri, egun berean, egin nien eskutitza:

Agur biotzez: Garmendia'tar Juan Jose, ta Sukia'tar Joxe Mari izan ditut, gaur, nere etxean.

Gure Kardaberaz-Bazkunarekin kezkatu etorri zaizkit biak, eta BATZORDE-NAGUSIKOERI dei-egiteko eskatu didate, arren. Eta emen natorkizute dei egitera.

«KARDABERAZ-BAZKUNAREN AURRERA-BIDEAK azaldu nai dizkigu Sukia'tar Joxe Mari'k eta DIRU-GORA-BERAK ETA LIBURUEN BERRI Garmendia'tar Juan Jose'k.

Ba'dira aztertu-bearreko beste arazo batzuek ere: «Bergarako Euskaltzaindia'ren billera dala-ta, ez al'dauka, Kardaberaz-Bazkunak, ezer-esatekorik...?, eta «noizko KARDABERAZ - 6...?»

Tolosa'n izango degu billera au Uztailla'ren 1'an, eta goizeko 11'etan.

An ikusiko geran ustean, agur ordurarte.

Tolosa'n bildu giñan, Uztailla'ren l'goan BATZORDE NAGUSIKO zenbait kardaberaztar : On Manuel Lekuona, Latiegi'tar Bixente, Garmendia'tar Juan Jose, Akesolo'tar Lino, Garmendia'tar Martin, Sukia'tar Joxe Mari, Arrinda'tar Anastasio, Olazar'tar Martin, Otamendi'tar Jose Mari ta Albisu'tar Anastasio.

Sukia'tar Joxe Mari'k eta Garmendia'tar Juan Jose'k eratu zan billera au, bertarako deiak zion bezela.

Sukia asi zitzaigun izketan, eta bere iritzia azaldu zigun : kardaberaztarrok sailkatu egin-bear giñala, alegia, ta sail baikoitzak gai bateri eldu, jakintza-gaietan batik-bat. Ori ez-egitera, Kardaberaz-Bazkunarenak egin zuala...! Eta zenbait-sail izendatu zituan : Jainko-izti, edesti, etnografi ta abar... Aipatu ziran ere, ikastola ta E.G.B.'ko bearko ziran, euskeraz idatzitako, ikas-liburuak.

On Manuel'ek artu zuan orduan itza, ta zera esan zigun : zer zegoan egiña, jakin bear genduala leen, alperrrikako lanik egin ez dezagun. Eta zeuden zenbait-lan aipatu zizkigun, nola : Latiegi'ren Eliza'ren ixtori osoa, Onaindia'ren Literatura osoa, Arrinda'ren Euskal-erri zaarra, On Manuel-beraren Aozko Literatura, Estetika, Mitologi ta abar... auek-danak laburpen bat eskatzen dute noski, umetxoen eskuetan ipintzeko. Baiñan or daude, zion On Manuel'ek. Bildu ditzagun lenengotik, ta orrela jakingo ditugu egin-bearrekoak.

Euskaltzaindia'k Bergara'n izango duan bilera ere, aitatatu zan, eta an egon bear genduala guk ere... Ortarako, ordea, izketan dakiten iruren-bat gizon bearko gizduzkeala... Eta gizon auek zeintzuk izan zeizkean, aukeratzen asi giñanean, egokiago iruditu zitzaigun zenbait kardaberaztar-aukeratuekin billera bat egitea ortarako. Ta antxen-bertan idatzi genduan dei-eskutitz au :

Agur Jaunak : gaur bertan Tolosa'n bildu gera Batzorde-Nagusiko batzuek.

Danok dakizutenez, laister Bergara'n billera bat egitekoa da Euskaltzaindia, ta kardaberaztarrok ere, gure iritzia azaltzea

bidezko litzake. Billera bat eratu degu ortarako : Uztailla'ren 20'ko ostegunerako. Eta billera ortan auxe-bakarrik aztertu nai degu : kardaberaztarrok, zer jokabide artu bear degun, billera ori dala-ta.

Oraingoz batzueri bakarrik dei egiten zaizute, gero, danon artean, Billera-Nagusi bat gertatu dezagun.

Eta auek zerate deituak :

Manuel Lekuona, Inozenzio Ayerbe, Anastasio Albisu, Anastasio Arrinda, Pedro Berrondo, Joxe Mari Sukia, Juan Jose Garmendia, Martin Garmendia, Bixente Latiegi, Felipe Tolosa, Martin Olazar, Xanti Onaindia, Lino Akesolo, Aita Mauro Elizondó, Manu Oñatibia, Antonio Azkue, Jesus Gaztañaga, Pedro Anitua, Alejandro Reparatz, Manuel Estonba, Iñaki Zubiri, Joxemiel Barandiaran, Iñaki Goikoetxea, Ander Manterola, Karmelo Etxenagusia, Josu Arenaza, Alberto Onaindia, Antonio Labayen eta Jesus Ellosegui.

Billera Tolosa'n, Iparragirre zine-aretoan, goizeko 11'tan.

Danok etorriko zeraten ustean, agur.

Eta Uztailla'ren 20'ean, Tolosa'n bildu giñan, aurreko deia jaso genduan, kardaberaztar batzuek.

Auek izan giñan bertan :

Lekuona'tar On Manuel	Garmendia'tar Juan Jose
Garmendia'tar Martin	Latiegi'tar Bixente
Otamendi'tar Jose Mari	Zubiri'tar Iñaki
Oñatibia'tar Manu	Ayerbe'tar Inozenzio
Estonba'tar Manuel	Aburto'tar Koldobika
Labayen'dar Antonio	Berrondo'tar Pedro
Olabeaga'tar Iñaki	Sukia'tar Joxe Mari
Akesolo'tar Lino	Arenaza'tar Josu
Zatarain'dar Ambrosio	Albisu'tar Anastasio

Auek bialdu zuten ezin-etorria :

Anitua'tar Pedro'k	Onaindia'tar Alberto'k
Reparatz'tar Alejandro'k	Barandiaran'go Joxemiel'ek
Gaztañaga'tar Jesus'ek.	

Gaiari elduta, EUSKERAZALEAK Bergara'ko Billerako eratu zuten agiria, irakurri zigun lenengotik Berrondo'tar Pedro'k.

Zubiri'tar Iñaki'k berriz, Aita Villasante'gandik jaso zuan erantzuna, irakurri zigun gero: EUSKERAZALEAK egindako agiriari, aita Vizasante'k emandako erantzuna, alegia.

Bergara'ko Bixera ortan erabilliko ziran «erregelak» irakurri zizkigun, gero, Akesolo aitak.

Gaztañaga'tar Jesus'ek bialdutako txosten bat irakurri zuan, azkenik, Sukia jaunak.

Gure jokabideari buruz, iru asmo aukeratu genituen, orduko, beintzat:

1. Gure idazkerarik ez aldatzea oraingoz.
2. Euskerarik jatorrean eta ederrean idaztea beti.
3. Ala ere, gure euskera-idatzia izan dedilla berdin-antzekoa.

Arantzazu'ko Billerari buruz, azalpen batzuek eman zizkigun Akesolo jaunak.

Arantzazu'ko Billeraren ondorenak azaldu zizkigun gero Arenaza'tar Josu'k.

Eta au esan zigun azkenean, Olabeaga'tar Iñaki'k: ea zergatik ez genien, beste-aldeko euskaltzaineri, ibilli-bearreko zerrenda txiki bat eskatzen...

Urrengo larunbatean bilduko zizala EUSKERAZALEAK Durango'n, eta kardaberaztarron izenean, aukeratu zizala bertan, erabaki genduan:

Olazar'tar Martin	Latiegi'tar Bixente
Arrinda'tar Anastasio	Ayerbe'tar Inozenzio

Beste eskutitz au zabaldu nuan Irailla'ren 17'an

Agur adiskide: Bixente Latiegi'k otsegin zidan Irailla'ren 15'ean, eta au esan zidan: alkatu-bearra genduala EUSKERAZALEOK eta KARDABERAZTARROK Bergara'ko Euskaltzaindi-billerak azterkatu, ta atera-bearreko ondorioak atera ditzagun.

Manu Oñatibia'ri dei egin nion gero, ta ontan gelditu giñan biok: ark bilduko zizuala EUSKERAZALEOK, eta biltzeko nik KARDABERAZTARROK.

Urrilla'ren 7'a aukeratu genduan billerako egun. Larunbata da, ta goizeko 11'etan izango degu billera ori Tolosa'ko Iparragirre zinearetoan.

An izango zeralakoan, agur eta ordurarte.

Baiñan Urrilla'ren 7'a etzan egun egokia noski, ta onela nion Irailla'ren 21'ean berrito egin-bear izan nuan eskutitzan:

Agur Adiskide: Artua izango dezu Urrilla'ren 7'rako egin nion deia.

Baiñan Tolosa'tik esan didatenez, ez luke On Manuel'ek etortzerik izango Urrilla'ren 7'an.

Urrilla'ren 14'ean ipiñi nai zuten, bada, billera au: EUSKERAZALEON eta KARDABERAZTARRON billera, alegia.

Manu Oñatibia'k, ordea, oso berandu ikusten zuan billera au, eta Bixente Latiegi'kin itz-egin ondoren, au gaztigatu zidan: Irailla'ren 30'ean (ill onen 30'ean) izango degula billera au Tolosa'ko Iparragirre zine-aretoan goizeko 11'etan.

Odurarete, bada, J. L.

Eta aukeratu giñan Tolosa'n Irailla'ren 30'ean.

Lekuona'tar On Manuel	Zatarain'dar Anbrozio
Ugarte'tar Nere	Olazar'tar Martin
Arzelus'tar Amale	Zubiri'tar Iñaki
Zinkunegi'tar Andoni	Balerdi'tar Jon
Otamendi'tar Jose Mari	Oñatibia'tar Jon
Berrondo'tar Pedro	Mitxelena'tar Pedro Mari
Garmendia'tar Martin	Gereka'tar Joseba
Oñatibia'tar Manu	Urruzola'tar Estanis
Arrinda'tar Anastasio	Sukia'tar Jose Mari
Apalategi'tar Bonifazio	Latiegi'tar Bixente
Garmendia'tar Juan Jose	Arzalluz'tar Jose Mari
Azurza'tar Jose Joakin	Labayen'dar Andoni

Albisu'tar Anastasio	Lekuona'tar Juan Mari
Baztarrika'tar Jose Mari	Goikoetxea'tar Iñaki
Gaztañaga'tar Jesus	Akesolo'tar Lino
Yurramendi'tar Felipe	Karrera'tar Jose

On Manuel'en agurra ondoren, Bergara'ko Euskaltzaindi-
billeraetan gertatutakoen berri ematen asi ziran Olazar, La-
tiegi, Azurza, Oñatibia ta abar. Eta ondorio-azken onetara
etorri ziran danak: alper-alperrik ari giñala. Ez zegoala aie-
kin bat-egiterik...!

*Eta galdera latz bat sortu zan orduan: "eta zer egin de-
zakegu orain guk, EUSKARAZALEOK ETA KARDABE-
RAZTARROK...? Euskaltzaidiaren-antzeko Akademi barri bat
sortu...?"*

*Lekuona, Barrondo ta Zatarain etziran Euskaltzaidiaren-
antzeko Akademi bat sortzearen aldeko.*

Eta On Manuel'ek, orduan, au esan zuan: Bere iritzian,
agiri zorrotz bat egin bear zitzaiola Euskaltzaindia'ri, amar
urte auetako euskeraren gora-berak zorrozki aztertuaz; eus-
keraren egoerari-buruzko liburu zuri, gorri edo beltz bat, ale-
gia. Ta auxe izango litzakeala, beste ekiñaldi batzuetan aste-
ko, oiñarri...

Danak onartu zuten On Manuel'en iritzia, ta bertan sor-
tu zan, sortu ere, asmo ori aurrera eramango zuan batzordea.
Eta onatx, bertarako aukeratuak izan ziranak:

Akesolo'tar Lino	Berrondo'tar Pedro
Oñatibia'tar Jon	Gaztañaga'tar Jesus
Azurza'tar Jose Joakin. Idazkari au.	Labayen'dar Andoni
Olazar'tar Martin	Arenaza'tar Josu
Zatarain'dar Ambrosio	

Baiñan jendea etzegoan orrekin-bakarrik gelditzeko. Ta
Oñatibia'tar Jon'ek egin zuan galdera: eta *Akademi berria*
sortzeari, zer...? Baiezkoa ala ezezkoa eman bear zaio...?

Eta "baiezkoa" izan zan danon erantzuna, leen aipatuta-

koena ezik. Eta batzorde bat aukeratu zan ortarako ere: ber-
tatik lanean egingo zion batzorde bat. Eta ona-emen batzorde
ortarako aukeratuen izenak:

Oñatibia'tar Manu	Latiegi'tar Bixente
Arrinda'tar Anastasio	Zubiri'tar Iñaki
Xanti Onaindia	Manterola'tar Ander

Eta onela nion Abendua'ren 15'ean, Batzorde Nakusikoe-
ri egin nien eskutitzan:

Batzordeko lagun, agur:
Kardaberaz Bazkunean gora-bera aundiak ditugu, ta oso inte-
resgarriak gure ustean. Lau gai aukeratu-bearrean gera sakonki:

1. «Euskera-zaintza»
2. 1979'grren urtean zabaldu bear ko diran liburuak.
3. On Manuel'en bilduma zertan dagoan eta nola dijoan.
4. Gure diru gora-berak nola dauden gaurko egunean.

Billera au Abendua'ren 22'an izango da Tolosa'ko Iparragirre
zine aretoan goizeko 10,30'etan.

Zure zai, etorriko zeralakoan, agur eta laister arte.

Eta Lekuona'tar On Manuel, Arrinda'tar Anastasio, Ota-
mendi'tar Jose Mari, Olazar'tar Martin, Garmendia'tar Juan
Jose, Akesolo'tar Lino, Berrondo'tar Pedro, Sukia'tar Jose Ma-
ri, Ayerbe'tar Inozenzio ta ni bildu giñan Tolosa'n Aben-
dua'ren 22'an.

Eta au izan zan, EUSKERA-ZAINTZA'ri buruz esan gen-
duana:

1. Euskerazaleak eta kardaberaztarrok sortua zanik, oso
begi-onez ikusten genduala EUSKERA-ZAINTZA erri-
akademi berria.
2. Kardaberaz Bazkunak, bazkun bezela ordea, ez dau-
kala zer-ikusirik Euskera-zaintzarekin.
3. Kardaberaz Bazkunekoak, askatasun osoa dutela Eus-
kera-zaintzakoak izateko...

Eta auek izango zirala, 1979'garren urtean, bazkide-artean banatuko ziran liburuak :

Kardaberaz 6.

Euzkal Eliztiaren betebideak (bi ale).

Erroma'ko Eleizearen Araudia

Etimologias Vascas de Luis Mitxelena

Iztueta'ren Olerkiak.

Liburuak jasotzean ordea, 2.500 pezta ordaindu bearke zituala bazkide bakoitzak: 1.000, urteko bazkide-sari bezala, ta beste 1.500'nak aipatutako liburu guztien truke.

Diru-Kontuetan, auxe esan zigun Juan Jose'k: 1978'garren urtean, alegia, 4.094.744 pezta ordaindu zituala Gazteiz'ko irakorlan. Ta auxe naikoa zan Urteko Billera Nagusia eratze-ko...! Eta Iibeltza'ren (Urtarrilla'ren) 13 aukeratu genduan Batzar'nagusirako eguna.

IV

AZKOITTIK 1978'GO ABENDUAREN 26'EAN

Bazkide maite :

Eldu zaigu BATZAR-NAGUSIA egiteko ordua. Ta BATZAR-NAGUSI au zerbait gertatu nairik, bildu giñan, oraindik-orain Tolosa'n, BATZORDE NAGUSIKOAK. Eta egia esan bear baldin badegu, interesgarria izan zan benetan gure billera.

Nork esan bear zigun guri, 1978'garren urtean bakarrik, 4.094.744 laurleko ordaindu-bear izan ditugula irarkolan, urtean argitaratu ditugun liburuak dirala-ta...? Ta ez ikaratu «iñuxente» —egunerako bi egun falta bait-dira oraindik!

Baiñan ez da ori dana. ba'dira aipatu-bearreko beste gai batzuek ere :

- a. 1979-garren urtean zabaldu-bearreko liburuak.
- b. On Manuel'en idazki-bilduma zertan dagoan eta nola dijoan.
- d. Liburu oien azalpenak, nun eta nola eratu leizken.
- e. EUSKERAZAINZA eta KARDABERAZ BAZKUNA... eta abar.

Tolosa aukeratu zan BATZAR-NAGUSI onetarako toki, ta Iibeltza'ren 13, (Urtarrilla'ren 13'a, alegia) egun bezela. Larunbata.

Billera dakizutenez, Tolosa'ko Iparragirre zine-aretoan izaten da, ta goizeko amar t'erdietan.

An izango zeralakoan, agur eta laister-arte, lagun.

Eta au ezarri zion Juan Jose'k nere dei oni :

D. JUAN JOSE GARMENDIA
KARDABERAZ - BAZKUNA
TOLOSA (Guipúzcoa)

De conformidad con sus deseos, nos es grato el facilitarle el siguiente PRESUPUESTO :

Concepto : 2.000 ejemplares de diez volúmenes de LE-KUONA'TAR MANUEL, *idaz-lan guztiak* :

- I. AOZKO LITERATURA
- II. EUSKO ETNOGRAFIA
- III. ARTE IZTI
- IV. KONDAIRA - A
- V. KONDAIRA - B
- VI. OLERKIAK
- VII. ANTZERKIAK
- VIII. KRITIKA
- IX. KULTURA
- X. APURRAK

Por un importe de SEIS MILLONES QUINIENTAS CINCUENTA Y CINCO MIL PESETAS (6.555.000 pesetas).

En este importe no está incluido el valor de los clichés, si fueran necesarios, ni el 2,70% del Impuesto Tráfico de Empresas (I.T.E.).

El importe de este presupuesto es susceptible de modificación si hubiera un alza de precios en las materias primas (papel...) o salarios.

Dicha subida se le notificaría oportunamente actualizándose su importe.

Con este motivo, le saludamos atte.

Por GRAFICAS ESET
Fdo. Andrés Ibáñez.

ETA TOLOSA'N GIÑAN, BATZAR NAGUSIAN,
1979 ILBELTZA'REN (URTARRILLA'REN) 13'AN.
ETA ONA-EMEN BERTAN BATU GIÑANOK:

Lekuona'tar On Manuel	Latiegi'tar Bixente
Garmendia'tar Juan Jose	Arrinda'tar Anastasio
Larraoetxea'tar Bedita	Artola'tar Fernando «Bordari»
Ayerbe'tar Juan	Ayerbe'tar Inozenzio
Sukia'tar Jose Mari	Elozegi'tar Jesus
Jausoro'tar Felipe	Sarasola'tar Koldo
Jausoro'tar Sabin	Labayen'dar Andoni
Jausoro'tar Xabier	Bergaretxe'tar Juan Jose
Akesolo'tar Lino	Arteaga'tar Lon
Arozena'tar Andoni	Etxeberria'tar Eusebio
Gaztelumendi'tar Klaudio	Oñatibia'tar Manu
Zatarain'dar Ambrosio	Garmendia'tar Martin
Pueyo'tar Rita	Azpiazu'tar Iñaki
Errezola'tar Marzelino	Otamendi'tar Jose Mari
Oyazabal'dar Antonio	Onaindia'tar Xanti
Olazar'tar Martin	Onaindia'tar Txomin
Gaztañaga'tar Jesus	Onaindia'tar Alberto
Urrestarazu'tar Andoni «Umandi»	Andueza aita
Garmendia'tar Juan «Zeleta»	Amondarain'dar Jesus
Peñagarikano'tar Juan	Urruzola'tar Estanislao «Uxola»
Barroeta'tar Klaudio	Berakoetxea'tar Iñaki
Berrondo'tar Pedro	Baztarrika'tar Jose Mari
Rekarte'tar Joakin	Oñatibia'tar Dionisio
Markaida'tar Juan Mari	Zabalo'tar Balendin
Arzeluz'tar Amale	Zipritia'tar Elbira
Albisu'tar Anastasio	

Gorostidi'tar Pedro'k eta Goiria'tar Txanton'ek gaztiga-
tu ziguten euren ezin-etorria.

On Manuel'en agurra ondoren, Albisu'tar Anastasio'k ar-
tu zuan itza au adierazteko: «Batzorde-Nagusikoen billeran,
zera esan zala, alegia: naiz-eta EUSKERAZAINTZA karda-
beraztarrok oso-begi-onez ikusi, ala ere, alkarrekin zer-ikusi-
rik ez zuten Bazkun bi ziralako beraz, EUSKERAZAINTZA eta
KARDABERAZ BAZKUNA, Euskerazaintzaren sortzailletako
bat Kardaberaz Bazkuna izan-arren».

Beste-orrenbeste esan zutela Euskerazaleak ere, esan zi-
gun ondoren Olazar'tar Martin jaunak.

Latiegi'tar Bixente'k artu zuan orduan itza, ta onek gar-
bi asko adierazi zigun, EUSKERAZAINTZA'k beste erakun-
de guztietatik aske izan bear duala berez, naiz-eta onartzen
ba'zituan ere, lagunduko zioten albo-bazkun batzuek... Eta
gaur-gaurkoz Eloseg'i'tar Jesus zala EUSKERAZAINTZA'ren
eta albo-bazkun oien idazkari... ofizialtasuna zala lenengo
lortu nai zutena, ta ortan ari zala Latiegi bera.

Errezola'tar Marzelino jeiki zan gero, eta kardaberazta-
rrok ez genduala Bazkunaren asmoa erdizka-baizik betetzen,
esan zigun argi-ta-garbi.

Eta onatx, zergatik: euskerarekin oso-kezkaturik bizi gi-
ñala, bai, baiñan ez, orrenbeste, animaen onarekin. Eta Kar-
daberaz aitak arako-ura esan zuanean, «EUSKERAK BURUA
JASOTZEA NAI DU JAUNGOIKOAK», animaen ona zeuke-
la, batez ere, buruan... Ez genduala eliz-liburu bat argita-
ratu. Ta leen argitaratutakoak, agortuak zeudela danak... Eta
ia danok, apaiz eta idazle giñanez gero, ea zergatik ez gen-
duan, gure eliz-barrutirako bederen, Orritxo bat argitaratu
bear, eliz-barrutiko parroki guztietara zabaltzeko gero.

Oso-ondo artua izan zan Errezola jaunaren iritzi au, eta
ez apaizen aldetik bakarrik, sekularren aldetik ere bai!

Eta eztabaida bat sortu zan bereala. Zergatik ez zan orri-
ori Euskadi'ko parroki guztietarako izan bear, eta ez Gipuz-
koakoentzat bakarrik...?

Ala ere, eta oraindik asmo bat besterik ez zan ezkerero,

egin zezala berak saio bat, esan zitzaion, eta sortu zezala be-
rak, ortarako, batzorde bat...!

Zeatz eman zizkigun gero Garmendia'tar Juan Jose'k di-
ru gora-bera guztiak. Eta ain-arrigarriak ziralako, txalo-aldi
luze batekin artu ziran bere azken-itzak. Ondo merezitako
txaloak...! Eta ez ditugu emen dirukontu oiek aipatzen leen-
txuago aipatu ditugulako emen-bertan.

Eztabaida luze bat sortu zan gero, On Manuel'en Idaz-
Lan-Guztiak azal ederragoakin argitaratu bear ziran ala ez...!
Ez ote zeuden ba, ederki-asko argitaratuak...? «Baietz» zion
On Manuel-berak. Eta Kardaberaz Bazkuna ez da dirua ira-
bazteko Bazkun bat, euskeraren-alde lana egiteko Bazkun
bat baizik, eta orduan..., zertarako alperrikako azal lodi-lo-
diak...?

Albisu'tar Anastasio

IDAZKARIAK

V

1979 EKAINAREN 9'AN IZAN GENDUAN KARDABERAZTARROK GURE BATZAR NAGUSIA TOLOSA'N

50 LAGUN BILDU GIÑAN BERTAN

Ayerbe'tar Inozenzio'k gaztigatu zigun bere ezin-etorria, Mexiko'n izango zala-ta.

«Aita gure» bat errezatuaz asi zuan On Manuel'ek batzarra «aita gure» au, egun aietan Tolosa'n bertan il zuten Bixente Lategi'ren koñatuaren-alde errezatu zuan On Manuel'ek.

Albisu'tar Anastasio'k azken-billerako agiria irakurri zuan gero; eta baita Ayerbe'tar Inozenzio'ren eskutitza ere.

Arrinda'tar Anastasio'k artu zuan itza, ta billeraren zergatia azaldu zuan. EUSKERAZAINTZA Kardaberaz Bazkuna'ren eta EUSKERAZALE'en frutua zanez, bidezkoa zala kardaberaztarroi EUSKERAZAINTZA'ren berri ematea, eta zertan zegoan EUSKERAZAINTZA'ren legezko-egitea...

Akesolo'tar Lino etorri ez zalako, Olazar'tar Marti'ek ekin zion EUSKERAZAINTZA'ri buruz=zenbait sailletan banatzen zan, alegia, eta sail-bakoitzaren zer-egiña, ta abar...

Loiola'n izandako billerari eldu zion gero. Eta Martin'en iritziaz, EUSKERAZAINTZA'ko gutxi bildu ziran bertan. Egia da ere, nekez eldu zirala billerarako deiak, eta askok ez zutela deirik jaso ere... Orregatik, asko ez zeuden Martin'en iritziarekin ados...

Eliz-liburuak (bataiokoak, ezkontzakoak, ildakoenak eta abar) aipatu ziran gero. An ziotenez, «eusker batuan» argitaratzeko asmoa omen zuten gure Gotzai jaunak.

Au dala-ta, batzorde batzuek sortu ziran Gazteiz'ko, Bilbo'ko eta Donosti'ko gotzaiengana joan zitezen, eta gure «ezekoa» agertu...

Oñatibia'tar Manu'k zionez, aurrera-artzea litzake onena. Zergatik ez ditugu guk-geurok agiri oiek argitaratzen...?

«Uxola'k» La Voz de España'n, Euskaltzaindia'k egin zuan Estatutoa'ren itzulpenari-buruz, argitaratu zuan idaz-lana aipatu zuan gero Albisu'tar Anastasio'k.

Gaztañaga'tar Jesus'ek irakurri zuan antxen-bertan Uxola'ren artikuloa, ta Albisu'tar Anastasio'k au esan zuan orduan: beti besteagatik gaizki jardun-bearrean, zergatik ez degu guk geurok Estatutua'ren beste itzulpen bat egiten...?

«Aita gurea» eskertuaz, bere koñatuari-buruz jardun zitzaigun lenengotik Latiegi'tar Bixente, eta EUSKERAZAINTZA'ra jo zuan gero. Oñatibia'tar Manu'ri eman zion itza, eta EUSKERAZAINTZA legezko-egiteko eman ziran urratsak aipatu zituan onek.

«Gipuzko'rako bakarrik ba'litz, erreza izango zala «onartze» ori lortzea, baiñan Euskadi osorako danez, Madrid'era jo bear dala nai-ta-naiez. Eta an, beti, traba geiago arkitzen dala. Ala ere, legezko baimen ori laister lortuko danaren itxaropena azaldu zuan azkenean.

Ikastolak ere aipatu zituan Latiegi jaunak, eta baita Gazteizaldean arlo onetan ari dan lana...

Bere kezkek agertu zizkigun azkenean Garmendia'tar Juan Jose'k = ez zuala betirako zorpean sartu nai, eta patxara obe an artuko zuala emendik-aurrera bere lana. Orregatik bi liburu besterik ez zituala argitaratuko urte barruan: On Manuel'en III alea, eta On Joxemiel Barandiaran'n bizitza euskeraz.

Eskerrak eman zizkion ere Umandi Jaunari Ipar-Euskadi'tik ekarri zigun diru-laguntzagatik.

Eta besterik-gabe amaitu zan billera.

Bazkide: Goizeko amaiketari Iparragirre Aretoan bilduko gara, Abenduko 29'an, gure urteko Kardaberaz'en batzar naguzirako.

Egitaraua

Don Manuel Lekuonaren agurra.

Euskerazaintzaren billera: Latiegi'tar Bixente.

- a) Euskerazaintzaren legezko egitea.
- b) Bazkide-laguntzalleak billatzea.
- c) Kardaberaz azkeneko billera nagusitik gaurarte egin ditunak.

Kardaberaz'en egoera eta etorkizuna. Arrinda'tar Anes.

- a) Billera bat urtero Euzkerazaintzakin.
- b) Eta Euskerazaleekin zer?
- c) Beste gurearen antzeko taldeekin, zer? Karrera'tar J.
- d) Gure araudiaren aldaketa ¿Zertan? Alkar - Izketa...
- e) Jose Maria Sukia idazkari berri?
- f) Liburuak banatzea 1980.

D. Manuel'en irugarren: ARTE-IZTI.

D. Jose Migel'en Bizitza euskeraz...

ORDAINKETA: bi liburu eta urteko saria 2.500 pta.

IDAZKARI

Albisu'tar Anastasio

1979-XII-29 KARDABERAZTARREN BATZAR NAGUSIAREN AGIRIA

Tolosa'ko Iparragirre-Aretoan, 1979'ko Abendua'ren 29'an, Kardaberaz-Bazkunaren deiaz, goizeko amaikatan, Euskerazaintza, Euskerazale ta Kardaberaztarrak batzarrean bildu ziran.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Naparro'tik, egun onetan, Aretoan, urteko Batzar-Nagusian bildu giñanak 78 Kardaberaz'tar izan giñan.

Eta, Albisu'tar Anastasio, idazkariak, bialitako egitarauak gidatuaz, onela jarraitu genion lanari :

1.— Lekuona'tar On Manuel'en agurrari, gure bazkun serbitzari, langille purrkatu-zintzoa izan zan, Elozegi'tar Josu'ren alde (g. b.) «Aita Gurea» erantsi genion. Zeru'tik oroitu ta indartu ditzala gure Euskera-bideak.

Ondoren, Garmendia'tar Juan Joxe'k adierazi zion Batzarri, Albisu —idazkariaren gaitz eta eziñak lapurtu digun aurreko batzar-agiria. —Tamalez, Anastasio jauna, eziñak loturik gertatzen zaigu. Langille-langille izan da, eta benetan argia!... Baiña, gaur, gaitzak neurtua!... Gure Bazkunak zor dio, eta gure Euskerak ere bai!... Orregatik, Batzar onek gozoz agertzen dio bere esker ona.

Gaiñera, Kardaberaz eta Euskalzaleen magalean jaio zitzaigun Euskalzaintza'rekin bateko biltzar onek geiago girotzen gaituala, danon bide-lagun egin zaigulako, naiz, bakoitzak bere egiteko berezian izan leku. —Soro bateko landaremota ugarien antzera, euskal-Jakintz-bideetan ere, lankera-motak ugaldtu leizkela.

Beste herri atsegin bat ere eman zigun : Leitza'ko Alkate, Oronoz'tar Jon'en eskutitz eta Udal-batzar baten bi euskal itzulkera, bata «batua» zaleek egiña eta bestea euskera-erritarrzaleena. Ikusten danez, aukeramena egiteko, bi euskal-akademi : Euskerazaintza ta Euskaltzaindia'ren iritziak ikusi nai dituzte, iñoren eskue-

tan jartzerako. Leitza-giroko euskera nai dute, euskerantokeririk gabekoa. Orregatik, Batzarrak Labaien jauna izendatu du iritzipe-na emateko, bera bait da, gure artekoetan, leitzar-kutsurik geienekoa, an zaindutakoa danez. Leitza'tik batzarrera etorri zitzaizkigun bi gizon gazteak biali genizkion albistari Alkate jaunari, artu zan erabakiaren adierazlari.

Alkatearen eskutitza 1979-XII-4'koa da eta Udal-Batzar-agiria Azaroaren 9'koa Alkate jauna, aditzera degunez, ez da «batu-zaleen» euskeranto naiekoa, leitzar-euskera girokoa, baizik.

2.— *Euskerazaintzaren billera* : Latiegi'tar Bixente jaunak aztertu zituan Euskerazaintza'ren, oraik arteko, gora-bera guztiak : Zenbat eragozpen, araudi eratze, joan-etorri, izan dituzten legeztatzen bakarrik!... Baiña, azkenean, naiz illabete batzuen atzeramenakin izan, lortu ditugula eskubide guztiak : Legez, Euskaltzaindiakoak añexe gerala.

Oñatibia'tar Dunixik bide leor asko urratu bear izan dituala ori lortzeko. Arburua eta Oreja jaunek asko lagundu digutela, goberno-aldatze eta Ezikentzako Ministerioan gertatu zitzaizkien atzera-bideak zuzentzen eta laixtertzen. Eta, orrela, bearrezko bideak osatu ondoren, «Ministerio del Interior, Dirección General de Política Interior-Servicio de Asociaciones» izeneko zuzendari nagusiak, eragozpen geiagorik gabe, 1979'ko Azaroa'ren 23'an izenpeturik jaio zaigula EUSKERAZAINTZA lege-bide guztietarako. Baiña, bere agermena ez dala egingo, Laterri'ko Aldizkari Nagusi edo Boletin'ean azaldu arte.

Ala-ta guztiz ere, bitarte orretan, ez gerala lotan egonak : Euskerazaintza'ko batzordeak ari dirala, jo ta ke, beren lanetan. Naiz eta ez lortu, joan dan Urrillerako, lenengo E.G.B. amalau liburuak euskeratu eta argitaraturik daudela, Bizkai eta Gipuzkeran. Eta erakutsi zaizkien ikastola-errikoi-izkuntzakoetan, oso ontzat artuak izan dirala, euskera giroan duten erreztasunagatik, alegia. Orañ egin bear deguna amalau oiek zabaldu ta saltzen saiatzea, oien diruakin bigarrengoai bidea jartzeko, len bait leen.

Euskal-Erriko Aldunak ere asirik ditugula euskera-itzultzalleen billa, Leitza'tik etorri zaizkigunen antzera. Gaiñera ez litzakeela gaizki izango geonez eskeinmena aurreratzea ; bideak irikitzeke ere

ez bait litzake aín txarra izango... Itzultzalle-ezkeintza egiteko, ordea, zerbait-zerbait eratu bearrean arkitzen gerala, ta bide obegorik ez gure izkuntz errikoia bere bidean jartzeko.

Gazteiztarrak eskeñi dutela beren laguntza, naiz, oraindik, ez etorri erantzunik... Naiz ez azaldu, oraindik, ofizialki, ba dirala ari diranak lan oietan: Zizurkill eta Anoeta'n (Murua).

Euskerazaintzalleak, etenik gabe, ari dirala lanean.

Ondoren, azaldu zuan, baita ere, Euskerazaintza'ren beste egarri bizi bat: dandanon laguntza, bultzada aundi bat berari emateko: alegia, Andereño-Eskola bat sortutzea: Euskera ta kristautza zaintza-bide jator bat aukeratzeko era gertatu dezagun... Orretarako, etxe hilla eman dituzten Joan-etorrien berri ere azaldu zigun. Eta iatarano etorri ondoren, izan duten eragozpena atzera utzi eta aurrea-asmoak ere azaldu zizkigun, baiña, baita begien aurrean argi ta garbi jarri ere neska ta mutillak orretarako billatzen saiatzea zein bearrekoa zaigun, gure sendi euskal eta kristau girokoen artean.

Ikasketa oietarako sari-laguntza bideak ere urratzen asitzeko garaian gaudela, sei-zazpi urte eta ikasi epea bearko lutekelako. Neska-mutill oien bideetan sartu gaitezen len-bait-len, alkar-bide ta kristau-giro jator bat orratzeko.

Orretarako, Ikastetxe-ametsa Euba izan zala: Pasionisten apaizgaitegia izana. An, bai bait genituen maixu ta ikasliburu ta gaiñetikoak; baiña lekaide-probintzialak etzuala onartu nai izan, naiz beste guztiak ontzat eman.

Balitekela ikastoletakoen gurasoetara aldatzea, orain arte, etxe artan dauzkaten eskubideak, eta, orduan, erreztasuna gertuago izatea ere bai.

Eziketa onetan, ezkertarrak muturra sartu bait dute gure leengo apaizgaitegiko erakuskintzetan. Bertako arduradunak dionez 10'tik 8 bestaldeakoak zaizkigula. Kristau-eziketa kentzea eskatzen dutela ikasleak eta Oñatibia'tar Dunixik guraso-elkarte jator bat antolatzea izango litzazigukela biderik bikaiñena. Gurasoak ez dardela jabetu-ta gauza oietzaz. Zabarkeri aundian bizi dirala.

Beraz, jende hilla asteko garaian gaudela, amabostetik amabostera, umetxo oiek alkartuaz, beren biotzetan Jainko ta Abe-

rria'ganako maitasuna pizten alegintzeko. Orregatik, gaurko egoe-rak, danoi jokaera berri bat eskatzen digula ta aurrera jo bearrean argitzen gerala, noski.

Eta orrek, beste egite bat ere eskatzen digula: orain irikitako bide aukeratu eramatzen jarraitzeko: langille berriak, alegia; obetogo esateko, langille geiago eta era guztietakoak, batez ere, laguntzalleak, diruaz eta abar...

Sortu degun Erri-Akademiak langille geiago eskatzen dizkigu. —Orrek esan nai diguna: kardaberaztarrak eta Euskerazaleak bakarrik ez gerala naikoak.

Laguntzalleak leizkela: 1000 laurleko illean eman ditzazketenak, —palta aundia egiten digutela—, gaur-egun, gure burua pixka-pixka bat jaso ta altxa eta azaltzeko.

Eusko-gobiernoak ere azaldu duala Euskerazaintza-miña.

Urrena, Oñatibia'tar Manu'k: Euskerazaleak erutzen ari diran SASKI-NASKI, —erderaz, «SELECCIONES» deritzaion gixako bat—, bidean dutela. Emendik amabost egunetara argitaratu leizkela. Artikulu motx eta goxo egiñak dakarzkilla, irakurgarri dedin. Baiña, orrek ere zabaltzalleak eskatzen dizkigula. Erri bakoitzean gutxienez ordezkari bat eukitzea elitzaiokele aín gaizki etorriko...

Aspaldiko Oñatibia'tar Jon zanaren eta Mendieta'tar Inaxio'ren ametsa izan dala. Atariko ateraño iritxi zanean, Oñatibia'tar Jon'en eriotzak atzeramena eman ziola; baiña, orain, Ameriketatik, zaar-sariraturik, Mendieta iritxi zaigunean, eldu zaiola bere ordua; onen zuzendaritzak emango diola babesa ta indarra, leenagotik erderazkoan kutsututa datorrelako.

Ondoren, Gaztañaga'tar Jexux'ek adierazi zigun, Gramatika —alorrean, Euskerazaintza'k egin duan «IDATZ-ARAUAK» lana. Guzien jabetzarako, «Kardaberaz» —Aldizkariaren 10'gn alean, 1980'an, alegia—, argitaratzea erabaki zan.

Eta, egitarauari jarraituz, Arrinda jaunak, Kardaberaz egoe-
ra eta etorkizunaz, itz bitan burutu zigun esan-nai osoa: Kardaberaztarron *ikurrizak*: «IDATZI TA ZABALDU» esaten digu.

Idazten ikasteko eraturik izan genduan idazkola. Ura azia besterik etzan izan. Aren zaiñetatik jai zaigun Euskerazaintzak edergarriago erakutsiko digu guri eta ondorengoei ere.

Eta, zabaltzen ere ez gera lo egon, naiz ez amets guztia egi biurtzera oraindik iritxi... : Or daude 34 liburu eder eta baita beste 11 liburuxka ere, beren lan ederrez jantzi-ta... Beraz, zabaltzen ere ba goaz. Illunpetan egindako ainbat lan argitaratu ditugu eta «AURRERA BETI» gure ikurtzari jarraituz.

Azalmen oni, Berrondo'tar Pedro'k eragozpen bat jarri nai izan zion: liburuak ateratzen zirala, alegia, baiña, etzirala bear ainbat saltzen edo zabaltzen, eta ondo egongo litzakela zeñ eta zenbat liburu argitaratu bear diran erabakitzea danon artean, dirurik ez daukagulako. Danon asmoak azaltzeko galderaketa bat ez litzakela añ gaizki izango.

Naiz Arrinda jaunak, naiz Garmendia'tar Juan Joxe'k emandako itzetan ez dago kezka orretarako biderik, oraingoz. Liburuak ugaritu ba'ditugu ere, zorrikan ez daukagula, beintzat. Eta lan ederrak argitaratzen ari generala, oraintxen ere: On Manuel'jaunarenak, adi bidez, eta Barandiaran'go Joxe Migel'en Bizitza ere bai.

Urrena, egitarau ariari Karrera tar Jose'k eldu zion. Argi eta garbi azaldu zizkigun, Gazteiz aldean egin eta egiten ari diranak: Ango, Udaberri'ko lanak eta abar, alegia. Naiz Olabide-Ikastola «batua»-tarren atzaparretan erori, etzuela beste batzuen joera artu berak. Etsaien artean, azilari gelditu zala ta jarraitzen duala, baita ikusi ere zenbat lan egin gentzakegun gure bideak zuzendu ta sendotzen.

Gaur-Gaur bezela, 60 irakasle besterik ez dauzkatela gau-eskolan. E.G.B.'ko irakasleei ere erakusten dietela Euskera, eta arratsaldeetan beste euskaldun saill bat eratu ere bai, lanari jarraitzeko. Euskerazaintzalleak eraturako Idatz-Eskolan, guztira 3.000 ikasleetara irixten dirala. —Olabidetarrak berak ere Kristau-Bidea erakusteko irakasle eske dauzkatela, aien sari-zorroan sartzeko eskubi-deekin. Orretarako, ba dituztela lau Ikastetxe, Gazteiz Urian zear.

Sariketa-zorren jabetasunaren atzetik dabiltzala eta ez dirala geldituko alik eta lortu arte.

Oien aldean, oso arloteak dirala «batua»-zaleak Gazteiz'en naiz, eta Euzkadi osoan ere, jakintz-bide ta eraketan. Beren Euskaltzaindi batzarrean beroiek esan da dakitela, erakutsi bideetan urri daudela oso. —Marianista, Samaniego ta Pio Baroja Ikastegiak ere gure irakasleak aukeratzen dituztela.

Baiña, gu geok ere erantzun dezaketanak ugaritu bearrean arkitzen generala, itto-ta gelditzea nai ez ba degu. —Lanean ez digutela erakutsiko «batua»-koak, ezin geinzkela, ordea, aurrera-bideak aaztu-ta bizi.

Umandi'ren «GRAMATICA VASCA»-k, dagoeneko, bi millan gora saldu dirak, eta ba dakigula «batua»-zale asko ta askok ere orixe erosi dutela.

Batzuen artean, ezin leizkenak, geiagoren artean, lortu egiten dira,—zion Garmendia'tar Juan Joxe'k, eta oso egi aundia: Kardaberaz eta Euskalzaleen arnasetan sortu genduan gure Euskerazaintza'k ere orixe ber-bera erakusten digu. —Beraz, euskal-eratzaille ta erakuntza guztietakoak zaizkigu interesgarri; buruz jazten diranak eta bide-irikitzaile trebeak ditezkenak. Euskaldunon artean naiko ugari dira trebetasunak apaindutakoak eta langille maillarako jaiotakoak. Karrera jaunak ba'daki zer dion, erakuntzlanetan ageri bait zaio bere iaioitasuna, eta guk laguntzen ba diogu, gentzaken añean, laxter jarriko gaitula aurrera bideetan trinko.

Orregatik, herriz ere, Karrera'k, bear bearrekoa zaigula Euzkadi osoan Euskera ta euskal-gizarte eder bat sortutzeko, langille leizkenen izen, zuzenbide eta trebetasunak len-bait-len biltzea, Aberriri gizarte-izardi jator bat gertatzen saiatzeko.

Danok ezagutzen ditugu gure Uri ta errialdeetan trebetasun oietako gizon-andreak. Bakoitzak al duana egiñaz, baiña, gaurko egoerak eskatzen digun añean etekin eta ondorio obeago baten atzetik lan egitea tokatzen zaigu. Alkartu-ta, bakoitzak zenbat dezakegun jakiteko, ez daukagu Eibarrera begiratu besterik: an, ba-dago abertzale bat 200 txistulari eta eunka dantzari, bideetan jarri dituana.

Saiatu gaitezen, beraz, danok, bizi geran erri eta lagun-arteetan, irakasleetarako erakutsi eta trebetzeko gai diranen izen eta zuzen-bide zerrendak egiten, ea, aste bin buruan, al dan aguroena, bizibide ta izanbide guztietarakoak, eta ez aukeramen baterako bakarrik, naiz pelotaritzarako, naiz eta bertsolaritzarako, berdiñ beste edozein gizarte bideetarako ere.

Bigarren lana izango litzake: oietako batzuek, errialde-errialdeka eratzalle izendatzeko lan-sariak tinkatzea (aseguratzea). Sariordaindu oietako 28 batekin eta bearreko diran beste ainbat ibill-

kiñekin elduko genioke gure amets-bideari. Eta, diruak diru, —48 milloi Iaurlekoen gora-bera ezer gutxitzat sumaturik—, urratu genduzazkegu gaurko euskal-egoerak eskatzen dizkigun joka-bideak.

Lan ori betetzen asteko, Karrera jaunak zabaldu zizkigun galderadi-orriak, amabost egunen barruan, bete-ta biurtzeko, naiz Euskalzaintzari, naiz Kardaberazi naiz Euskalzaleai, aldanik leenen, lanari eltzeko.

Danok oso ontzat artu genduan erabaki ori. Eta Karrerak esan bezela, ez degula ikaratu bear, gogozko erabakiak berekin duelako izate-indarra. Diruagatik ez ikaratzeko, zion, buru-auste ta korapilloak begien aurrean artzen ditugunean, berak izango ditugula dirukintza-bideak irikiko digutenak. Eta, batenbatek esan ere egin zigun, gañera : Merezi ez dutenai ematen ba zaie, nola ez lana egiten eta lanerako eskatzen dutenai? —Guztion lanak eta giroak sortuko dizkigute, beraz, Iaurlekoak edo txanponak, eta aurrera...

Orrela, zenbat eta aguroago jabetu nortzuk geran, orduan eta egokiago erantzungo genioke «Kardaberaztarrak» bunkertarrak gerala dioten, Azpiroz'ko Bikario ta arren antzeko beste zenbaiti...

Gero, orduak aurrera zijoazela, eta Araudiaren aldaketa beste baterako utzi eta Sukia'tar Joxe Mari, Batzarrak idazkaritzat onarturik, 1980'ko liburuen banaketa ontzat emana izan zan : On Manuel'en III : ARTE-IZTIA eta Barandiaran'go Joxe Migel'en Bizitza euskeraz, 2.500 Iaurlekoen truke.

Eta, orrenbesterekin bukatutzak eman genduen gure batzarra. Esan-egindakoen agiritzat ziñezten du.

Sukia'tar Joxe Mari'h

VI

DONOSTI'TIK 1980'GO ABENDUAREN 12'AN

Agur, bazkide :

Ill onen 29'an, urte bete, Tolosa'ko Iparragirre-Aretoan, Euskerazaintza, Euskerazale ta Kardaberaztarrak, urteko Batzar Nagusian, bildu giñala.

Beraz, egin du ebirik, arrezkero!... Bañan, biltzeak ere badi-tu bere lanak eta zailtasunak...

Orregatik, ill onen azkeneko asteartean, 30'an, Tolosa'n, Iparragirre-Aretoan, *goizeko amar ta erdietan* = 10,30 =, Batzar Nagusia izango dugu, urte guztiko gora-bera ta artu-emanen azalketa egiteko.

Bere garai batean bukatu al izateko, esaten dan orduan, txin-txo ekingo diogu batzarrari.

Eta ara zein diran billera oni dagozkion gaiak :

1. *On Manuel'ek* : Itz-aurre edo ongi etorria ta, urte buruan, ildakoen aldeko otoitza.
2. *Idazkariak* : Azken-Batzar agiriaren adierazia.
3. *Latiegi'tar Bixente'k* : Euskal Jakintza edo Kultura (Labayen) ta Eziketa (Etxenike) ministerioen jokabideak Euskerari buruz.
4. *Oñatibia'tar Dunixi'k* : Euskaltzaindi'ko Lendakari Lekuna'tar On Manuel'en aurka, ziñ-indarrez izenpeturik, eratu zutenen agiri-agertzea; ta On Manuel'ek, egun batean, eskatu zigun liburu Zuri edo Gorriaren adierazmena.
5. *Olazar Martiñ'ek* : Euskerazaintza-bideen berri, ta erribideko Idazledi-ametsak, gaurko Euskera-egoerari kimu sendo bat txertatzeko.

6. *Gaztañaga'tar Jexux'ek*: Euskera'ren Idatz-arauen berri ta bideak.
7. *Garmendia'tar Juan Joxe'k*: Kardaberaz-liburuen buru-austeak eta oien aurrerako argitara-bideak zein?...
8. *Aldizkariak*: Euskerazaleak, Kardaberaztarrak eta Euskerazaintza'k bide bat ala iru?... Gure arteko, lau aldizkari!: Saski Naski, Zer, Goiz Argi, Kardaberaz, —Euskerazaintza'ri leiokena aitatu gabe, obetogo ez al leioke gure Euskera maiteari bat..., edo bi, geien ondo ornitzea, euskalki guztiei bideak irikiz?

Galde-Erantzun unea: Albisu'tar Anastasio'ren «20 IPUI ETA... ANTZERKITXO BAT» eta «AMEZKETA'KO PERNANDO» liburuak agorturik omen ditugu. Ta jendeak oien eskea agertzen omen du. Berriz argitaratzeko egokitasunik eman gentzake ala ez?

Onekin izketa-bidea zuen esku daukazute

Entzun, arren, gure deia ta etorri danok, Euskera-arnasari aize berri ta intz goxo baten musua ematera, esandako egun eta ordu-rako.

Biotzez agur

Sukia'tar Joxe Mari'k

1980'KO ABENDUAREN 30'AN, GOIZEKO AMAR ETA ERDIETAN,
 TOLOSAKO IPARRAGUIRRE ARETOAN,
 KARDABERAZ BAZKUNA'K EGIN ZUAN BATZARRAREN AGIRIA

Eguna zearo otza... Ala ta guztiz ere, Euskalerra osotik Tolosa'ratuak 62 izan giñan :

Agote'tar Kepa
 Agirre'tar Maria Dolores
 Amundarain'dar Joxe Mari
 Akesolo'tar Lino
 Arrieta-Arzalluz'tar Amale
 Arrinda'tar Anes
 Arzallus'dar Joxe Mari
 Ataun'go Bonifazio Aita
 Ayerbe'tar Inozenzio
 Arregi'tar Esteban
 Barroeta'tar Claudio
 Berakoetxea Inazio
 Beraza Manuel
 Baztarrika Jose Mari
 Bergaretxe Jon Joseba
 Berrondo Pedro
 Zipitria Elvira
 Korkostegi Reyes
 Dorransoro'tar Jokin
 Errezola'tar Martzelino
 Erbiti'tar Soledad
 Gabirondo'tar Kepa
 Galarraga'tar Juan Mari
 Galarraga'tar Luis Mari
 Garcia'tar Martin
 Garitaonandia'tar Jesus F.

Garmendia'tar Inazio
 Garmendia'tar Juan Joxe
 Garmendia'tar Martiñ
 Gaztañaga'tar Jesus
 Insausti'tar Mari Tere
 Irigoyen'dar Txomin
 Jakakortajarena'tar Txomin
 Larrakoetxea'tar Benito
 Latiegi'tar Bixente
 Lopez-Mendizabal'tar Xabier
 Moraiz'tar Mirentxu
 Olazar'tar Martiñ
 Onaindia'tar Alberto
 Onaindia'tar Xanti
 Oñatibia'tar Dunixi
 Oñatibia'tar Manu
 Oñatibia'tar Bixenta
 Otaegi'tar Tomas
 Otamendi'tar Joxe Mari
 Peñagarikano'tar Juan
 Pinillos'tar Luziano
 Pueyo'tar Rita
 Kerejeta'tar Paulo
 Salbarredi'tar Demetrio
 Sukia'tar Joxe Mari
 Toledo'tar Nekane

Urrestarazu'tar Andoni
Urruzola'tar Estanislao
Yurramendi'tar Felipe
Zabalo'tar Balentin
Zatarain'dar Anbrosi

Zubikaray'tar Agustín
Zubillaga'tar Euxebio
Zubiri'tar Iñaki
Orbea'tar Itziar

Berrondo jaunak On Manuel sukarrak eta eztulak oiari loturik zeukala, eta aren eziñ etorria agertu zigunean.

1. Aita Akesolo'k, Ekintz-bideari eldu ta, ongi etorri egiñ ondoren, urte zuruan il diran bazkideen aldeko otoitza eratu zuan.

2. Eta, bereala, idazkariak irakurritako azken-batzar agiria onartua izan zan. Eta, agirian jasotako, Karreras jaunaren izen biltzeko galderadiari buruz, astindutxo bat egin zan, azkeneko batzarrean zabaldu ziranai oso gutxi izan diralako erantzun dutenak. Eta, erantzun oien garrantzi ta bearra berrituaz, galderadiak herriz ere bialduko zirala ta, arren, egiteko eskatu ta baiezkoa arturik.

Latiegi'tar Bixente, artean, iritxi etzalako,

3. Oñatibia'tar Dunixi jaunak «EUSKALTZAINDIAKO LEN-DAKARI LEKUONA'TAR ON MANUEL'EN AURKA, ZIÑ-INDA-RREZ IZENPETURIK, ERATU ZUTENEN AGIRI-AGERTZEA, ETA ON MANUEL'EK, EGUN BATEAN, ESKATU ZUAN LIBU-RU ZURI EDO GORRIAREN ADIERAZMENA»K eman zizkigun. Naiz luzaroan sartu, batzarrak gogoz entzun zizkion, eratu zuan txostenean bildutako adierazgarriak.

1649'tik asi ta Larramendi - Kardaberaz - Lardizabal - Sabino Arana ta gañetikoak, Euskera errexten egin zituzten alegiñak azaldu zizkigun; eta, bide oiei jarraituz, 1918'an Azkue jaunaren itzalean sortu zan Euskaltzaindia'ren giroa ere bai, ain zuzen.

Baiña, urteen buruan eta Franco'ren menpeko egunik garra-zenak baztartzean izan ziran, apirillean, Bayona'n lendabizi, ta urrena Mayatzea'n Eibarren bildu ta maltzurkeri ta iraiñ-bideak izkutuka zinkatu zituztenak, On Manuel Euskaltzaindi'tik botatzeko.

Beraz, Arantzazu'ra zer egin burutu-ta joan ziran, naiz eraba-

ki artzera, orduan ere, ez iritxi. Eta erabaki artzeko egunak alde batera utzi gero, eta, beren kixan, eratu zuten, Bergara'n, 1978'an, bitartean egin zituzten Batua-nasketak ontzat artu ta Euskera ta euskaldun guztientzat izan-bide erabakitzeke.

Eta jokabide oiek, naiz kaxkarrak izan gizarterako, ba-dituz-tela itzala ematen dizkietenak.

Bear eta, ondoren, iritzbideak iriki ginduzten: Olazar - Labayen - Akesolo - Berrondo - Zatarain - Latiegi - Gaztañaga - Manu Oñatibia ta abarrek eman zituzten beren iritzmenak, entzundakoa-ri buruz. Eta egi-indarrari dagoiken jazkera ta egokitasuna, emateko, bazkun bat gertatzea ona izango litzakela ta: Akesolo, Zatarain, Olazar, Gaztañaga ta Latiegi'ren baitan, baiñan, len-bait-len argitaratzeko orraztu eta eratzekotan utzi zan lan ori.

Azkenik, Dunixi'k eskatu ta zabaldu ziran orri batzuek, liburu orri itzal emateko, Erri-Euskera maite dutenen izen-sail batzuek bilduaz.

4. Ondoren, Latiegi'tar Bixente'k: «EUSKAL JAKINTZA EDO KULTURA (Labayen) TA EZIKETA (Etxenike) MINISTERIOEN JOKABIDEAK EUSKERARI BURUZ».

Egun berean, bi billera jarri omen zizkioten: Labayen'ena ta Etxenike'rena. Onerenera joaterik ez omen zuan izan, erakusketa-lanak utzi etziolako. Labayen'enera joan ziranak: Manu, Yurramendi, Zatarain A. ta Bixente. Ibilitako gaiak: Leendik erabakia daukanez, Alderdiak Azkue'ren Gipuzkera Osotua erabilli bear du. Jaurlaritzak ordea, Gipuzkera ta Bizkaiera, biak, erderaz gaiñera.

Labayen'i garestiegia zerizkion bide ori. —Bixente'ren erantzuna: «Jaurlaritzak alperrik diru geiago gastatzen ez ba-du, zorrionekoak izango gera euskaldunok».

Irratian, herriz: albiste bat bizkaieraz, bestea gipuzkeraz; eta era orretan, bi euskalkiak neurri berdiñean.

Zine ta Urrutikuskan ere, argaz-mintz edo pelikula bat gipuzkeraz, bestea bizkaieraz. —Orrela, euskaldun danak bi euskalkiak berelaxe ikasiko lituzteke, batez ere umeak, jolastean: Heidi egi-ten duten neskak biakaieraz mintzatuko lirake ta Pinotxo egiten dutenak gipuzkeraz.

Euskera osaketarako, mintzakera ori, zeñen bide ederra, izketarik batere naastu gabe!...

Labayen'ek Lendakari jaunari gauza ori azaltzea eskatu omen zion, eta, amabost egun geroago, Zatarain, Manu ta Bixente bildu omen ziran Garaikoetxea'rekin.

Lendakari jaunak, ikastola izena aittatu zan bezin laxter, naiz Euzkadi'rako naiz Eleiza'ren hideetarako, arrixku aundiak daudela erakunde orretan, omen zion: «Ese estamento está podrido», eta baita beste au ere: «no debimos dejar nunca el guipuzcoano», —izkuntza bidean, alegia.

Saiatu zala elkar-izketa arretan Lendakariari Euskerarik gizabidekoena zeñ leiken aztertzen: Gaur gaurkoz, edo gaur gaur bezela, ez Azkue'rena ta e Euskaltzaindiaren Batua; Euskera errikoia, baizik; Eusko-Jaurlaritza-erriek darabilkitena: Bizkaiera ta Gipuzkera, alegia. Bestela, etsai ta etsaikeririk ez litzaiokela paltako, naiz alde batetik, naiz bestetik. Bide onean ezin leikela beste aukeramenik.

Bixente jaunak onoko beste au ere esan zigun: Enbajada-bidez, atzerrietako gure egoera antzeko errien jokabideak jakin naiean, egin zuen idazketa. Eta erantzun zutenen erantzunak diotenez, erri oietan, adibidez, errusiko errialdeek bakoitzaren izkuntzetan eratzen zituztela jokaera guztiak. Kanada'k eta Belxika'k bi izkuntzetan eta Suiza'k ango iru izkuntzetan. Labayen'i bezela, Garaikoetxea'ri ere azaldu omen zioten Euskalki biak ibiltzeko era eta onek txortzen labur batean jartzeko eskatu adibide oiek guztiek; eta baita, andik bi egunera, euskeraz eta erderaz txosten ori bialiere.

Eta Bixente'k, Garaikoetxea'k aren txosten-idatziari eman zion erantzuna, irakurri zigun, urrena. Arek zionez, arreta aundiz jaso zuala eta oso jatorra iruditzen zitzaiola, gainera.

Baiña. Bixente'k: Garaikoetxea, Etxenike ta Labayen Batua-zaleak ditugula, zion.

5. Olazar Martiñ'ek: EUSKERAZAINTZA BIDEEN-BERRI TA ERRIKIDEN IDAZLEDI AMETSAK GAURKO EUSKERA-EGOERARI KIMU SENDO BAT TXERTATZEKO.

Urrena, Olazar Martiñ'ek azaldu zuan Euskerazaintza'k bere burua sendotzen ari duan saiaketa.

Baita ere aspaldiko ametsa egi biurtzen daraman alegiña, alegia, erribideko euskerea zenbatek jorratzen duten jakitea. Orretarako 200 eskutitz inguru bialdu dirala ta erantzunak, bana-banaka datoztenak, 79'raño irixten dirala. Eta danak agertzen dutela saill orretan izateko ta lan egiteko poza; ba-dirala ere beste batzuek, lanerako aulduak arren, erakusten saiatzeko prest daudela, diotanak.

Bazkun edo talde au zertarako? Banakan, ezer gutxi naiz, alkarturik, batabestearren arrimoan, indar-bide zaigulako. Eta alkarturik uste baiño lan geiago egin gentzakelako. Idazlediak gertatu deiguke erakunde eraginkor bat. Orrek eskatuko diguna, batzorde bat egitea, bere araudi ta guzti, gero lana banatu ta ekiteari eltzeko.

Ta orrek eskatzen digun beste gauza bat: «zer egin jakiteko asmamena eta egiteko alkar-laguntza. Euskadiko eskualde osoko idazleen bidez, euskaldun guztiek errez ulertzeko euskeran eta egunen buruan, nai-ta ez, Euskerea osotuko edo batuko dute».

Orrek bear duna, ordea, ta eskatzen duana, idazleen batzarretan ezta-baidan, iritzi-onartuak ugaritzea. Naiz ez bide erreza, ori litzake, zalantzarik gabe, jokaerarik ederrena.

Asmo au Euzkadi osoari agertu bear genioke. Orretarako, oraiñ arte egin degun lanik ederrena, len esan degun, 200 eskutitzak zabaltzea, Euskalerrian zear.

Zabalkunde au Kardaberaztarrak ta Euskerazaintzak erakundetu bear dute. Danon arduran jarri bearreko lorea zaigu, euskallore berri au.

Idazle geiago bear ditugu. Gure aldizkarietakoak bakarrik ez ditugu naiko. Euskerazaintza'ren ondokoa danez, jaiotzez, idazleak baiño ez dira sartuko edo sartzen erakunde onetan. Beraz, **ERRIBIDEN IDAZLEDIA** Euskera zabalaren larretan sortua izango da eta danen frutuak danai zabalduko diona, danak batera ekarriaz.

Guztien oniritzi berekin du amest onek. Orain, aurrera-bidea orri nola eman?... Ara or gure beste egiteko bat.

6. Bereala, Idazkariak eldi zion ariari: «**ALDIZKARIAK**: Euskerazaleak, Kardaberaztarrak eta Euskerazaintza'k bide bat ala iru?... Gure arteko, lau aldizkari!: Saski Naski, Zer, Goiz Argi, Kardaberaz, —Euskerazaintza'ri leiokena aittatu gabe—, obetogo ez al leioke gure Euskera maiteari bat..., edo bi geien, ondo ornitza, euskalki guztiei bideak irikiaz...?».

Gaur egun, eziñean eta indar gutxiko aldizkarien orde, ez al litzazuke obe izango aldizkari bat, ondo egiña, giro goxokoa ta erakuslaria? —Gaiñera ez ote bidegarriago, Euskera batera biltzeko? Asteroko bat? Gure euskaldunak bere Edesti, Ederti, Gizartetza, Aurrerapideak, Euzkadi'ko Lan-Bideak, asteko albisten laburpen bat, etabar.

Orretarako, idazleak lan-aukeramen bat artu bearrean izango giñake. Ta ori bakarrik ez, gaiñea gai askotan erkideratu ere bai idazle ta beren lanak. Orrek eskatuko liguke, nai-ta-nai-ez, erkide guztietara (Euskal-Erkidetara, alegia) bideak irikitzea, bakoitzak bere euskalkian idatzi dezaten. Eta batasun bidean asteko, on litzakela, nago, euskalkikoentzat itz, gutxi ezagunak kako artean adizallea sartzea.

Nere ametsa? Ala amest egin bearra?

Eztabaida batean arazoak alde guztietara ikusten ziran eta eztan ezertan gelditu gauza. Bakarrik, dauden aldizkariak zabaltzen saiatu bear aundia daukagula, iñor gutxik erosi eta irakurtzen dituztelako.

7. Orduak aurrera zijoazten, eta Juan Joxe Garmendia'k, laxterka batean, azaldu zituan bere buru austeak, liburu kontuan.

Kardaberaztarrok, 50 urtetik gorakoak gerala gazteenak ere ta ezin leikela lengo bide ta martxatan jarraitu. Nai-ta-nai-ezkoa zaigula gure amest zaarrei oñarriak berritza.

Batzar Nagusi bat egin bearrean argitzen gerala gauza au erabakitzeko. Liburu egiten saiatu gerala ta bat baiño geiago on askoak izanagatik or daudela pillatu-ta, saldu gabe: batzuek Irura'n, oraiñ Alkiza'ra eraman bearrean, Irura'ko nagusiak andik kentzeko agindu dualako; beste batzuek Leaburu'n, besteak Tolosa'ko Iparagirre-Aretoan; eta Bitoria'n bertan ere bai ainbat ekarri gabe, nun sarturik ez daukagulako.

Batzar-orde bat eskatu zuan zertara jo ta zer eragiñazi bear dan erakutsiko duana. Ta ori ill onetan bertan, sal-bideak eta liburu egiten nola jokatu bear degun erabakiak artzeko.

On Manuel'en lau ta bostgarren aleak gaurtik zabalduko dirala: Kondaira A. ta Kondaira B., bi milla ta bosteun laurlekotan bazkideentzat. Oiek, bazkideen urteko sariarekin 3.500 laurlekotara irixten dirala. Azkeneko bi auk 1.017.000 laurleko kosta dirala.

Mokoroa'ren liburu-bideen berri eman zuan urrena. Oraiñ, ikusten danez, Mokoroa Retana'rekin asia omen da bere liburu-ateratzeak zuzentzen, leenago Kardaberaz-Bazkunarekin egin da duan ituna aazturik. Juan Joxe'k esan zuan ez dagola oi ta orrenbestez eskubide oiek galtzeko. Retanarekin ezta-baidatuko zuala eztabaidatuko eskubide = gure eskubide = ori.

Beste liburu bat ere ateratzen ari dala, orain «beatifikatu» bear dituzten bi gipuzkoarren bizitzak, On Manuel'ek euskeratuak: errezildar Ibañez de Erkizia'tar Domingo ta oñatiar Aozaraza'tar Mikel domingotarrenak, ain zuzen. 200 liburu ale artu al izango ditugula bazkideentzat eta leenen eskatzen dituztenentzat izango dirala.

8. Gaztañaga'tar Jexux'ek: **EUSKERA'REN IDATZ-ARAUEN BERRI TA BIDEAK**, Juan Joxe Garmendia'ri emanik dituala argitaratzeko prest. Eta oiek argitaratzeko diru-eska-bidea ba-duala Euskerazaintza Akademiak.

Eta orrenbesterekin, Galde-Erantzunei iriki zitzaizkien ateak eta, beste askoren tartean, ara garrantzirik aundienekoak zeintzuk izan ziran: Albisu'tar Anastasio'ren «20 IPUI ETA... ANTZER-KITXO BAT», eta «AMEZKETA'KO PERNANDO» liburuak agorturik daudela ta jendeak nola eskatzen dituan, berriz argitaratzea ona litzakela, egokitasunik ba-litzake. Jendeak agertu zuan olako kezka garratz bat gure artean gertatzen ari danakin: Erri-Etxe ta Aldundi'etako langille izateko eskatzen duten Euskal-Titulua dala ta ez dala, Euskaltzaindiarena bakarrik onartzen dutelako. Ta ori nola leiken beste Akademi bat euki-ta?

Manu Oñatibia'k esan zuan Euskerazaintza «de utilidad pública» ezagutzea eskatu-ta zeukatela. Orduan, naiz Madrid'etik naiz Euskadi'ko Jaurlaritzatik dirua sortuko zala.

Latiegi jaunak eskatu ziola Roson'i eskubide-ezagutze ori. Emen gertatzen ari dana tamalgarria dala, benetan: EE. ta H. B'koek baztar guztiak arturik dauzkatela bide oietan eta P. N. V.'koak ez dirala, oraindik, lotatik esnatu. Ez dagoala Boletín'etan, eskubide ori eskatzerik, bearrezkoa bezela.

Alderdia, erriz-erri, asi bearrean dagola txosten au aztertzen. Erri bakoitzean, bost edo sei aurkitzea naiko degula, gure alde lan ori egiten saiatu ta lagunduko digutenak. Orduan, ikusiko gen-dukela nola eskatzen duten akademi-titulo ori.

Errezola bazkideak ere azaldu zuan kardaberaztarren egin bear bat bezela: Jesukristo'ren Ebanjelioa'k, euskera goxo ta errikoian argitaratzea; On Manuel'ek eta sortu zuten euskeran, gure base-rritar eta euskaldun jator guztiak irakur al dezaten berak egiten duten izkera xamurrean. Orretarako, ondo egongo litzakela, danon artean, pixka bat laguntzera: bakoitzeko milla bana laurlekoaz, gero, gaiñeakoa Diru-Kutxa ta antzekoen laguntzaz osatzeko bi-deak izateko.

Egin zanaren ezaugarritzat ziñ dio idazkari.

Sukia'tar Joxe Mari'k

LIBELTZAK VII

1981'KO LIBELTZAK 15

Adiskide ta bazkide:

Aspaldi onetan, azaldu degu libururik kardaberaztarrok, bai-ña, bazkideak lotan, logure ala irakurle?...

Ba-dira ta ez gutxi, liburuen ajolik gabeko bazkideak. Bene-tan tamalgarria orixe!... Ainbeste ordaindu ta argitaratu, gure Eus-kerari bide-giroa sortu ta irikitzeo eta bazkideak, zabaltzalle bea-rreran, jabetu ere gabe...

Biotz-miñez daitzuet, ori ez dala euskaldun jokatzea. Ez deio-gula gure Euskera maiteari miñ-bizia sartzen utzi!...

Atarian dituzu Lekuona'tar On Manuel'en beste bi ale: Kon-daira A. ta Kondaira B. Ale bi herri, On Manuel'en lau ta bost-garrenak.

Bien sari-ordaiña: 2.500 laurleko. Orri, urtekoa erantsi-ta, 3.500 laurleko.

Otsailletik asiko gera bialtzen eta, arren, ez egin miñnik eta ez atzera biurtu, diru asko galtzen degu bideetan eta... Naiko ez lukenik ba-litzake, ill orretarako, aditzerá eman dezala, TOLO-SA'ko KARDABERAZ BAZKUNA, Apartado 83'era.

Oietzaz gaiñera, Onaindia'tar Alberto jaunaren Irrati-Itzaldi li-buruak ere ari dira azaltzen; iru eskuetan ditugu. Nai lukenik ba-litz, Kardaberaz Bazkunak, inork baiño ordain-sari egokiagoan, saltzeko eskubidea ba-du.

Orixe'ren «BENITO'REN ERREGELAK» ere emen daukagu 400 laurlekoan.

Adixkide maite, aspalditxoko lo-zorroari alde batera egin da asi gaitzen gure Bazkunari izardi berri bat txertatzen. Ori da, gaur, guk danok Euskera maiteari zor dioguna-ta...

Zure ezezkorik ezean, datorren illean, or izango dituzu On Manuel'en ale bi oiek. Eta KARDABERAZ liburuxkak aurten osatuko ditugula, —palta zaizkigun laurak—, adieraziaz.

Esker-agurra ta besarkada zure lagun eta bazkide.

Sukia'tar Joxe Mari'k

DONOSTI'TIK 1981'GO ABENDUAREN 14'AN

Agur, bazkide :

Ill onen azkeneko asteazkenean, 30'an ain zuzen, Tolosa'ko Iparragirre-Aretoan, goizeko amaikatan, Euskerazaintza, Euskera-zaleak eta Kardaberaztarrek izango dugun Batzar Nagusira deitzen zaitut.

Urte bete, azkena bildu giñela... Izanen dugu, beraz, jakin eta esatekorik. Etorri ba-da txintxo ta esaten dan ordurako.

Billera onetan joko diran gaiak, ara emen :

- 1.— *On Manuel'ek* : Itz-aurre - Ongi Etorria, oi dan bezela.
- 2.— *Latiegi'tar Bixente ta Oñatibia'tar Manu'k* : Euskerazaintzaren berri.
- 3.— Idazle-Elkartearen berri : *Olazar'tar Martiñ'ek*.
- 4.— *Gaztañaga'tar Jexux'ek* : Euskerazaintza'ren Itz-Arauak eta Goiz Argi'ren berri.
- 5.— *Zubiri'tar Iñaki'k* : Euskerazaleakoen eta ZER'en berri.
- 6.— *Oñatibia'tar Manu'k* : Edili ta Saski Naski'ren berri.
- 7.— *Arrinda'tar Anastasi ta Garmendia'tar Juan Joxe'k* :

- Kardaberaz Bazkuna ta bere araudia.
- Batzar Nagusia
- Batzordea
- Dirugintza
- Idazkaritza

- Aldizkaria (7 (78), 8 (79), 9 (80) eta 10 (81)).
- Bazkideak
- Bazkide-saria
- Argital-etxea
- On Manuel'en liburuen azalketa.

- 8.— *Garmendia'tar Juan Joxe'k* : Aita Justo-rekiko Ituna.
- 9.— *Garmendia'tar Juan Joxe'k* : Euskal Zinema, Euskerazko Pelikulak.
- 10.— Beste billera bat, urte buruan, Euskerazaintza'k Kardaberaztarrekin.
- 11.— *Karrera'tar Joxe'k* : Gazteiz'ko bere Erakundearen berri.
- 12.— *Galde-Erantzun unea* : Bearreko ez ote, sendo eratutako Ikustaldi bat Eusko Jaurlaritzakoei?...

Ba-dakigu billerak bearreazkoak izaten dirala, baiñan oraingo au oso bearezkoa zaigula nago. Beraz, egin zuen beste artu-emantetan zulotxo bat danok alkartu gaitezen egun orretan, bear diran erabakiak eta bear diran aiñean jaso ditzagun gaurko egoerak eskatzen diguneraíño.

Biotzez agur eta laixter arte

Sukia'tar Joxe Mari'k

1981'KO ABENDUAREN 30'AN GOIZEKO AMAIKETAN,
TOLOSAKO IPARRAGIRREN-ARETOAN,
KARDABERAZ BAZKUNAK EGIN ZUAN BILLEAREN AGIRIA

Eguna ta giroa guztiz bikainak; Neguaren kimurik gabeak!...
52 bazkide bildu giñanak, Ego-Euzkadi osoatik.

Aldaregia'tar Imanolek adierazi zuan bere eziñ etorria: Eus-
kal-Erriko Gotzaiek Bitorian zeukaten batzarrera joan bearra zeu-
kalako, egun berean.

Ara izandakoen zerrenda:

- 1.— Abade Mauro, beneditarra.
- 2.— Akesolotar Lino.
- 3.— Anduezatar Gregorio, Kaputxinoa.
- 4.— Arozenatar Andoni Lasartekoa?
- 5.— Arregitar Esteban.
- 6.— Arrindatar Anes.
- 7.— Barruetatar A. Klaudio, Tolosako Korazonista.
- 8.— Begiristaindar aita Alberto, beneditarra (Lazkaokoa).
- 9.— Bergaretxetar Joxe.
- 10.— Berazatar Imanol.
- 11.— Dorronsorotar Jokin.
- 12.— Erbititar Bakarne (Sole).
- 13.— Etxeberriatar Euxebio.
- 14.— Gardetar Martzelino.
- 15.— Garmendiatar Iñaxio (Ormaiztegikoa).
- 16.— Garmendiatar Joxe Martin.
- 17.— Garmendiatar Juan Joxe.
- 18.— Garmendiatar Martin.
- 19.— Garri Martiñ («el gorri»).
- 20.— Galarragatar Juan Mari.
- 21.— Gaztañagatar Jexus.
- 22.— Goikoetzaundiatar Jokiñ.

- 23.— Goiritar aita Joxe Txanton.
- 24.— Irulegitar Juan Martiñ.
- 25.— Jakakortajarenatar Txomin.
- 26.— Jausorotar Pilipe (Oñatikoa).
- 27.— Jausorotar Xabier.
- 28.— Korkostegitar Reyes.
- 29.— Labayendar Andoni.
- 30.— Latiegitar Bixente.
- 31.— Lekuonatar Imanol.
- 32.— Lopez-Mendizabaltar Xabier.
- 33.— Moraiztar Mirentxu.
- 34.— Olazartar Martin.
- 35.— Onaindiatar aita Xanti.
- 36.— Oñatibiatar Dunixi.
- 37.— Oñatibiatar Manu.
- 38.— Orbetar Itziar.
- 39.— Otamenditar Joxe Mari.
- 40.— Peñagarikanotar Jon.
- 41.— Pueyotar Rita.
- 42.— Saldarreditar Demetrio.
- 43.— Solozabaltar Joxe Manuel.
- 44.— Sukiatar Joxe Mari.
- 45.— Toledotar Nekane.
- 46.— Urkiritar Timoteo, C.M.F.
- 47.— Urrestarazutar Andoni (Umandi).
- 48.— Urruzolatar Estanis.
- 49.— Yurramenditar Pilipe.
- 50.— Zataraindar Anbroisi.
- 51.— Zubikaraytar Agustin.
- 52.— Zubikaraitar Joxeba.

Egitarauaren arian:

Lenengo: On Manuelen ongi-etorria ta esker ona ainbeste bil-
du giñalako.

Ondoren, idazkariak, egitarau luzea gendukala aurrean eta,
buruz, aurreko urteko billeraren laburpen-agiritxo batekiñ eman
zitzaion asiera eguneko egitekoari.

Bigarren: EUSKALZAINTZAREN BERRI, Latiégitar Bixente ta Oñatibiatar Manuk eman zuten.

Bixentek: Erria jabetu bearrean arkitzen gerala Euskerari gertatzen zaionaz. Ori aurrera atera naiean, bera, Manu ta Dunixi asiak zirala Errietan billketak eratzen: Zarautzen, Altzan, eta bi aldiz Eibarren egin dituztela billketa oiek. Amabosten bat gizon-emakume izan dirala erri bakoitzean alkartu diranak. Jendeak arretaz entzuten duala, gure Euskera-bideetan gertatzen ari dana, baiña geiagorik gabe; besterik lortu gabe, alegia.

Gure Erria erabat moteldurik daukagula, zion Bixentek. Ala ta guztiz ere, ezin gentyakela utzi egin-bear ori. Ta orretarako, errietan, buruzai leikenik dagoan jabetzea oso interesgarria litzakela, gero, asku-ardiak artaldean bezela, beren errietan Euskera-zaintzaren jarraitzalleak egiten saia ditezen. Bestela, gure aurrera-bideak itxirik ikusten dirala.

Bixente'ren laño beltzak, Manuk zerbait arindu zituan. Manu etzan orren kezkatu azaldu: «Gipuzkoako Foru Aldundi Agiriko Hizkuntz Kontselluarendik» sortutako Euskera-Saillak. Euskera-zaintza'ri izendatu dizkiola milloi ta erdi. Ala ta guztiz ere, ezer gutxi, egiteko askotarako. Milloi ta erdi oietatik «idatz-arauak argitaratu, Mokoroaren 90.000 esaldi jator atondu, DUDEN-iztegia, asteroko hitz-sariketa, ariketak eta E.G.B. mailako liburuentzat»... Eta Eusko-Gobiernoak ere bai beste 500.000 pezeta, urtearen aserako.

Baiña, beste gauza arrigarri bat ezagun azi zigun Manuk: alegia, Aita Permiñek erri-euskeran, ikastolatarako zuzendutako txetxoak argitaratzeko, 22.700.00z pezetan eskariari Eusko-Jauraritzak emandako erantzuna, bere bakaltzain Etxenike'ren bitartez: Baietz, emango dizkiola, baiña atxerekin=h=idazteketan. Noraiño iritxi geran!... Ori entzun zanean, izan zan esan zuana: Aita Permin makurtu bearrean izango zala, iñundikan ere, lan asko bait dago egiña ta zorra zer esanik ez.

Gaiñera, nola edo ala, Euskera'ren bizitzarako, txeto oiek ikastolatzea bear-bearrezkoa zaigulako.

Oiek orrela dirala, Zubiri jaunak bere, Euskerazaintza, Euskerazale, Erakusle ta idazleen izenean, Bizkaiko euskerari egiten

ari zaion ankapetzea ta larritasunak Eusko Jauraritzari salatzekotan omen da, beste erabide batzuek eskatuaz, dauzkan bizitasuna ta idatz-bideak galdu ez ditezen.

Orrek miñ aundia emango duala, zion On Manuel'ek eta azi ona izan leikela. Beraz, esan bearrik ez dago zeñen egoera latzetan arkitzen geran. Beraz, ezikuntza-bidean, atxerik gabe ezin gentyake liburik argitaratu... Onekiñ ate guztiak itxirik uzten dizkigute, naiz-ta ez ukatu beste gaietako argitalpenik. Baiña, orain Ezkuntzan bezela, biar, Irrati ta Irrati-Ikuskiñan ere ez al digute beste orrebeste egingo? —Noraiño irixten da Mitxelenak dion «bellas artes» saill libre ori? Etxenikek, Mitxelenak diona, egiten omen du.

Albiste onek izketa-bide gogorra sortu zuan gure batzarrean, ez bait da gutxigotako ere!...

Bateenak eta besteenak entzun ondoren, On Manuelek, —lenegotik naiz batzu-batzuek ez izan iritzi berekoak—, salatu egin bear zirala Euskaltzaindia ta Eusko-Jauraritzaren jokaera auek, besterik diralako, naiz Arantzazun naiz Iruñan artutako erabakiak; orduko erabakien aurka ari dirala. Salaketa bizkor bat egiteko garraian gaudela.

Gaiñera, bakaltzain Labayen'i ere eskatu bear zaiola, —emen, beraren egiteko bat dalako—, Madrid'ko agintariak eginda daukaten eran, Euskerazaintza eskubidetzeko, Euzkadi'ren aurrean.

Eta ori bakarrik ez. Egunkarietara ere bialdu bear dala erantzun gogor eta sendo bat, Ikastolatarako liburu-argitatzeari jarri nai dioten baldintzagarrik; alegia, atxerik gabekorik ez.

Erantzun ori argi ta ongi eratu ta idatzi al izateko, batzorde bat sortzea erabaki zuan batzarrak, eta ara nortzuk aukeratu ta izendatu zituan:

Lekuona'tar On Manuel, Kardaberazko Lendakari bezela.
Urrestarazu'tar Andoni, —Umandi—, Arabatarren izenean.
Akesolo'tar Lino, Bizkaitarrenean.
Arrinda'tar Anastaxio, Gipuzkoatarrenean.
Iza'tar Joxe Mari, Napartarrenean.
Zubiri'tar Iñaki Euskerazaleen izenean.

Latiegi'tar Bixente, Euskerazaintzarenean.

Olazar'tar Martiñ, Euskera-Idazledi-Saillarenean = (92 bazkide).

Orrela, Erri-Euskera-Erakunde guztiak sartzen dira barruan eta danen izenean babes eta itzal aundiagoa izanen du, nola nai ere, salaketa orrek.

Salaketa orretan, azaldu bear dana: Euskaltzaindia'k, Bergara'n 1978'an, eraturako biltzarrera, alkar-bidetza jator baten bidean, bialdu ziran eskaerak; ainbeste Euskaltzain eta euskal-idazleek izenpetu-ta.

Otamendi'tar Joxe Marik erabaki oni oar bat orraztu zion: gogorkerira jo ta, ate guztiak ixtea baiño ez ote obeago atxe ametitzea, Euskera jatorrari ateitxiak nolabait ere irekitzen asteko, biarkoaren ederragoari begira? Leikena bait da, gaurko etsaikeriari heste agar bat biar sortzea edo jaiotzea. Txillardegia ta Intxausti ere Mitxelena'k kontra dauzkala, dagoneko ta?... Eta onek azkeneko «MUGA»n idatzi duanak izanen dituala, nola nai ere, astinketarik; eta elkarren burruka orrek ba-leikela beste bide batera eramatea Euskaltzaindia ta euskaltzaiñak.

Eta gaurko atxezaletasun aizeari, aldiak soildu leiozkela bera osto galduak, eta iñork uste baiño leenago, agian. Bitartean, Euskera'ri, naiz atxeren ortzetan izan gaur, bideak apur bat eratu ta mugatzea ez litzakela aiñ gaizki izango. Ala ta guztiz ere, obeagotzat jo zan Eusko-Jaurlaritari adierazgarri ori begien aurrean ipintzea.

Erri-Euskera'ren etorkizuna Bizkaya'n zegoala, oraingo, zion batzarrak. Eta Iruña'n JEL'Batzarrak erabakia zutik zegoala, oraindik; eta Gipuzkoera osotua dala Euskal-Erria'n erakutxi bear litzakena. Ez daukatela jarraitzerik daramakiten bidea, beren legeei arrika eman gabe. Ta ori ez dala gizabide zuzena, gutxiago, oraindik, errizaleena.

Irugarren: —Olazar Martiñe'k eman zuan Idazledi-taldearen berri. Larogei ta amabi dira izena eman dutenak. Baiña, batzarretara gutxi azaltzen dira, noski, batzuek zarrak diralako ta besteak ezin dutelako. Begi onez ikusten dute erakunde ori, baiña ez diote

erasten ortzik. Asmatu bearrean arkitzen gera zer egin gentzakegun saill berri orrekiñ, —alegia, nora jo gentzakegun.

Aldizkarietara bideetan idazten jarri?... Ori dezaketenak, bide orretara zuzentzea ongi izanen litzakela...

Laugarren: Gaztañaga'tar Jexux'ek Idatz. Araudia egiñik daukala esan digu. Larogei orri inguru sortu zaizkiola: ikurrak, izkien-zerrendak, idazkera, deklinabidea ta abar eta abar, darabiltz-killala bere erakustetan.

Liburuxka oietatik, 250 ale Kardaberaztarren bazkideentzat, aldizkari bezela zabaltzea erabaki zan. Ilabeteko epea izango zala, geiena jota ere.

Bostgarrena: Zubiri jaunak etzuan etortzerik izan eta, bere ordez, Olazar'tar Martiñ'ek eman zizkigun Euskerazale ta ZER'en berriak. Bi milla bazkidek osatzen dute Euskerazale-Bazkuna. Urtean beiñ alkartzen dira, —erdixka batean... Irureun'en bat ikasle daukate; liburuxka batzuek eta illeroko ZER aldizkaria argitaratzen dituzte, aiñ zuzen. Datorren ZER, 50'garrena izango da. Pozik irakurtzen dala dio. Oso txukuñ egiña, gaiñera.

Illeko berrien laburpen bat erasteko asmotan daudela. Geiago ere bai: aurtan, aurrekoetan bezela, atera dutela EGUTEGIA ta naiko atsegiña, jendearen ustetan. Egutegi au Aurrezki-Kutxaren kontura azaltzen dala ta Euskerazaleei 15.000 ale ematen dizkiola ta Kutxak berak beste 35.000 zabaltzen dituala. ZER ere bi Aurrezki Kutxak: Probintzialak eta Munizipalak, ordaintzen dutela, geinbat.

Pozkarri izan zitzaion Batzarrari bizkaitarren sasoi ori ta oso onartua.

Seigarren: Oñatibia'tar Manu'k Edili ta Saski Naskiren ezin biziak. Arrera oso kaxkarra izan omen du Saski Naskik eta ez dakiala 25'gn zenbakia ateratzeko bizitasunik izango duanik. Seireun arpide besterik ez dauzka ta beste 600'en bat saltzen ba-dira liburutegietan. Eta gutxieneko. 3.000 arpidedun bearrezkoak dirala bizi-tzeko. Iru milla arpidetara iritxi ezker eta arpide bakoitzeko urtean milla laurleko saria jo, biziko litzakela, baiña, ez bestela.

Aldundiak eratu duan «HIZKUNTZ KONTSEILUAREN» bidez, 231.000 laurlekoen laguntza izendatu diotela, «ARGIARI, berriez, 2.000.000'koena, —500.000 iru illabetetik iru illabetera, asteoro azaltzen ba-da. Manuk aditzera eman omen zion Konseiluari ezberditansun ori etzuala aiñ zuzena jotzen. Baiña, erantzuna beste batera arte!...

«GOIZ ARGI» ere sasi-arte berean arkitzen zaigu, noski: dirurik ez, gutxi saldu ta eziñ eutsi asteroko arian... Onentzat Aldundiko Kontseiluak izendatutakoak 268.000 laurleko izan dira. Euskaltzaindiarentzat 1.450.000 laurleko; ta Euskerazaintzarentzat 1.500.000, gorago esan degun lanetarako. Ao askorentzat jateko gutxi, baiña, batere ez baiño geiago bai, beintzat.

Ostarte bat bezela, Zatarin-dar Anbrosik Jaurlaritzatik iritxi zaion liburu batetik zatitxo bat irakurri zigun, ez an esan nai zagnagatik, baizik dabilkian izkeragatik: euskeraren arrasto ta usairik ez duan euskerantoean jaiotakoa zalako. Eta parretxo baten ondoren.

Zazpigarren: Arrinda'tar Anes'ek eman zigun Kardaberaz Bazkunaren zergati-laburpentxo bat, orduak aurrera bait zijoazkigun... Gazteizko Apaizgaitegian jaiotako, 12 urte zituala, gudateak astindua ta auts bihurtua. Baiña, orain 11 urte, berpiztua bere araudi ta guzti; ta, lenengo saioan baiño biziagoa izan nairik, gaiñera. Bere asmo jatorrak: *idatzi ta zabaldu*. Orretarako bi bide zuzendu zitzaizkion: Eskola ta Argital-etxea. Idatzi ta argitaratu naiko ondo egin degu, baiña zabaldu?... Gutxi, oso gutxi!... Erdizka bete degu, beraz, asmo aundi ta eder ura. Asi berrian, urtean, bi batzar eratzten giñuzten. Azken aldi auetan, bat bakarra! Bazkidesaria bera ere oso atzera gelditu zaigu, —orain bost urte, milla laurlekoa gaurko bostekoa aiñekoa zan. Gaur, oraindik ere arekin goazelako, gure argitalmena urritu egin da. Urritu bakarrik ez, jarrai-biderik gabe utzi gaitu. Aurrera jarraitzekotan, erabaki berri bat artu bearrean arkitzen gera, beraz.

Zortzigarren: Ari oni eldu-ta, Garmendia'tar Juan Joxe'k azaldu zituan Dirutzaren egoera ta erdoiak. Dirurik ez daukagulako ta gauzak goraka dijuaztelako, argitaltzea gelditurik dagoela. Atzera gelditu bear izan dutela On Manuelen 6 ta 7'garren liburuak, bi

miloi ta erdi leurreko eskatzen dituztelako bakoitzatik milla bana ale ateratzeko.

Eta On Manuelek beste bost edo sei ale geiagoentzat ere badaukala gaia; batzuek zuzenduak, gaiñera.

Beraz, oraintxe bi urte bezelaxe, diru billa asi bearrean arkitzen gerata. Ta orretarako, ta lanei beren bidea jartzeko, batzorde bat sortutzea oso bearrezkoa iruditzen zaiola, une onetan; gauza auei guztiei bultzada bizkor bat emango ba-zaie.

Orain bi urte bezelaxe, On Joxe Mielen beste eskutitz baten babesean, ateak jo bearrean gaudela, Aurrezki Kutxa ta beste aintzat Erakundeei.

Ta, nai-ta-nai-ez, gaur bertan, izendatu bear dala batzorde eraginkor ori, bere eskubide osoarekiñ.

Gauza atzera utzi gabe, batzorde orretarako aukeratu ta onartuak:

Galarraga'tar Juan Mari

Bergaretxe'tar Joxe

Tolosako Aita Berroeta, Klaudio Korazonistea

Moraiz'tar Mirentxu

Jakakortajarena'tar Txomiñ

Urruzola'tar Estanis

Salbarredi'tar Demetrio

Arzasus'tar Joxe Mari

Garmendia'tar Juan Joxe ta Gaztañaga'tar Jesus eta

Sukia'tar Joxe Mari

Izan ziran.

Bederatzigarren:

Ta aurrera jarraituaz, beste onoko albiste au ere eman zigun Juan Joxek: Eusko Jaurlaritza iritxi dala «FIDES» Elkartera, zerbait egin naiean Zinema gaietan. Amar pelikula eskatu omen ditu euskeratzeko. Orain 20 bat urte euskeratu ziranak, 50 orduen ikustaldia betetzen dutela, zion Oñatibia'tar Manu'k. Ondoren, Aita Justo Mokoroa'rekiko gora-beera ta artu-emanak ziran lekuko. Argitara-bide guztiak eratu ta euki ta, bi-iru alditan, luzamena ugaritu ondoren, Aita Mokoroa'k Kardaberazekin ez daukala itunik adierazi omen dio. Garmendia'tar Juan Joxe'k eskuetan azaldu zituan, ordea, ituna ta ondorengo aldaketakeriak.

Oñatibia'tar Manuk ara zer esan zigun gauza oni buruz : Mokoroo jaunak beste ate batzuetara jo duala : Labairu-Erakundera, ain zuzen. Eta onek Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, argitaratuko omen diola. Ta ez duala uste, Kardaberazi, eskatzen dituan aleak, ukatuko dizkionik : ale bana bere bazkideentzat, argital diru-neurrian. Ori errex lortuko zala ta onez eta pakean gelditzea zala biderik egokiena. Ori izan zan guztion asmo ta naia.

Noizbait bear eta, jo zan urteko bazkide-saria ere : bildutako ya danen iritzia : Bi milla laurlekotara jasotzea. Baldin eziñekorik balitzake, dezakena eman dezala.

Amargarren : Beste billera bat, urte buruan, —baten orde bi—, Euskerazaintzak Kardaberazekin gertutzea bidezkoa jo zan eta Batzordearen eskuetan utzi, beraren eraketa.

Amaikagarren : Karrera jauna etorri etzalako, ez genduan Gazteizkoz jabetzerik izan.

Amabigarren : Berandutzen zijoan eta, amen batean, Aita Mauro beneditarrak agertu zigun bere amets-egarri nai bat : Aita Agustín Apaolaza'ren lanketa, ain zuzen, —ORDUAREN LITURJIAN ETA ELIZAKO BESTE LIBURUETAN AINBESTE LAN EGINDAKOARENA : Itzulketa guztiz errex eta goxo ta erabide aiñ jatorrean egindako, Salmoen liburua argitaratu nai lutekela. Gutxi gora-bera, 500-600 orrialdekoa. Otoitz-izketa-bidetarako berealdiko girokoa, gaiñera.

Lazkaon egin dutela bere idazkera ta Zamora'n nai lutekela liburugintza. Ordainketa, berriz, Aita Mauroren baitakoa. Baiña, salbideak ematen diela bildurra ta gure Elkartearen laguntz eske zetorrela : ale sail bat gure bazkideentzat eta abar.

Guretzako aleei, azal barrenean, pozik asko, erantsiko ziela Kardaberaz izena. Eta idazkolako neurrietan, beren ordainketa : al zan erarik onenean beti, irabazbiderik gabe.

Batzarrak, aren eskabidea onartu ondoren, eskerrak emanaz, agurtu giñuzten. Eta, berealaxe, Uxola'k ere agertu zigun beste berri eder bat : alegia, Israeldarrak 200 dolar bialdu zizkiotela, olerki batzuek eta Itun Zaar eta Berri bat bialtzeko eskatuaz.

Aita Plazido Mugikak ere argitaratu duela «*DICCIONARIO*

VASCO CASTELLANO», bi aletan ; eta danon izenean, esker ona agertzea erabaki zan. Emen sartu, bialdu zitzaion eskutitzaren kopia.

Azkenik, Aita Onaindiak azaldu zuan, berak gipuzkeraz egindako liburutxo bat : Teresa deunaren «*LAS MORADAS*» eta *BIZITZA*. Irureun laurlekotan. Bereala saldu zituan, ekarri zituan ale guztiak.

Besterik gabe, —garaia zan—, eta bukatutzat eman zan batzarra.

Egun onetan esan eta egindakoaren agiritzat, ziñezten du idazkari.

Sukia'tar Joxe Mari'k

DONOSTI'TIK 1982'KO ILBELTZAREN 19'AN

Mujika'tar Aita Plazido'ri

AZPEITIKO LOYOLA'RA

Ene apaizkide ta adixkide kutun :

Abenduaren 30'an, Tolosako Kardaberaz Bazkunaren billera Nagusian, azaldu zan zure izena ere... :

«*Diccionario Vasco Castellano*» argitaratzea lortu dezula-ta!...

Bikaña, benetan, zure lan ori!... Aspaldian, danok ain zai geuntzkana!...

Beraz, danon pozkarri zure ainbeste ta ainbeste lanen burutze ori!... Gure Euskera maiteak bai bait du izardi zaarraren amets berri ...

Batzar osoaren agindua beteaz, dan-danon esker ona biotzez agertzen dizut.

Egin dezu lanik eta ametsik, bai orixe!... Euskal-Erri ta euskaldun guztiak poztu ditu zure Euskeraren Iztegi onek.

Jainkoak saritu zaitzala egin dezun lan eder eta argitaratze ja-
tor orregatik.

Zorionak, beraz, agur biotzkorra ere bai ta besarkada aundi
bat zure adixkide ta Kardaberaz Bazkunaren idazkari.

Sukia'tar Joxe Mari'k

VIII

DONOSTI'TIK 1982'KO MAIATZAREN 24'AN

Agur azkide-lagun :

Gogoan dezute, noski, 1981'ko Abendua'n, Kardaberaz Bazku-
nak, Batzar Nagusian, agertu zuan bidea-bere : bi batzorde sortzea =
Bata Eusko Jaurlaritzaren Lendakariari, Jakintza ta Ezikuntz ba-
kalziñei beren Euskerarekiko jokabideak salatzeke ta Bestea Baz-
kunari bizi-bide-berritze bat sortu eta txukuntzeko. Bizi berritze
ori urratzen saiatzeko, gutxienez, bi batzar nagusi bear zirala ere
bai.

Orregatik, bost illabeteen buruan, egiñik duen lanen berri zuei
azaltzea asmatu du batzorde onek. Orretarako, batzar nagusi ori,
datorren garagarrillaren 12'rako zuzendu du ta Tolosa'ko Iparragi-
rre-Aretoan, ain zuzen, goizeko amaikatan. Etorri danok, Bazku-
na danona dala adieraziz eta, —garai-aldiak guzioi eskatzen digu-
na—, bizi-giroten lagun deiogun gure biotzeko Kardaberaz-Baz-
kun oni.

Ara egun orretarako egitaraua : (orreri zuetakoren batek zer-
bait geiago erantsi nai balioko, izanen du epe ta unea).

- 1.— Abendu'ko batzar-agiriaren irakurtze ta onartzea.
- 2.— *Uxola'k* : Bazkide ta liburuen zerrenda berritzeak.
- 3.— *Moraiz'tar Mirentxu'k* : Kardaberaz-liburuen salmenta-
bideak, Batzoki ta gaiñetiko lagunarteetan eta abar... Eta
Aldundikoen jokaerak Ikastoletakoi eskeñi ta Irakasleek
eskatutako liburuei buruz.
- 4.— *Garmendia'tar J. J.*— Irarkola ta argitaratze-gai ta bi-
deetzaz :

- On Manuel'en Kondairaren D. ta E., aurreratzen di-joazela.
- Gaur, liburu bakoitzeko milla ale 800.000 laurlekota-raño lepotzen dirala.
- Eta Diru-Eskabideen berri.

5.— *Garmendia'tar Martiñ'ek* : Diruzaintzaren sarrera-irteerak.

- Bazkideen arteko urte-sarien ordainketak.
- Ordaintzen ez dutenen salaketa.
- Sari-ordaintze ori, Aurrezki Kutxara bidez ordaintzea, danontzat onena.
- Eta urte-sari ori, Otsaillean, aurrez, eskuratzea, irar-kola giroan, nola jantzi jakiteko.

6.— *Gaztañaga'tar Jexux'ek* : Izparringi, Irrati ta Ikusirradi bideetan, Kardaberazentzat zer?

7.— *Akesolo'tar Lino'k* : On Manuel'en galdera batzuen erantzunak.

8.— *Idazkariak* :

- Beste euskal-erakunde batzordekoekin artu-emanetan jartzeko asitako bideak eta oietako batzuen erantzunak.
- Bazkide berriak billatzea, danon eginkizuna, baiña ez ditezela zaarrak bakarrik izan, neska-mutill gazte ta irakasleak, batez ere, bear-bearrezkoak zaizkigula, gauden egunetan.
- Apaiz sailla geranez, —Kardaberaz bazkideetan—, gure liburutxoen salmenta atea irikitzen saiatzea ain zaila ote litzake? Egun jakin batzuetan, eleiz-atarin mai-txo bat jartzea ez ote liguteke lagunduko ainbeste giroko giza-emakume, gazte edo zaarren artean? Eta ez da saltzeagatik bakarrik, Euskera jakintza girotu ta edertzeagatik, baizik.
- Eusko Jaurlaritza, Jakintza ta Ezikuntzako bakalziñen euskera-bideen jokaerak salatzeako aukeratutako batzor-de-lanen berri.

- 9.— *Jaka Kortaxarena'tar Txomiñ'ek* : «Euskera Batuaren epaiketa». Ontzat artzen ba'da 11'garren Kardaberaz al-dizkaritza bete lezake, noski.
- Besterik gabe, billera orretara arte, biotzez agur daitzue zuen idazkari.

Sukia'tar Joxe Mari'k

1982-6-12'AN TOLOSAKO IPARRAGIRRE-ARETOAN
KARDABERAZ-BAZKUNAK
EGINDAKO BATZAR NAGUSIAREN AGERIA

Amaikak jota zeundela ta, erdi gaixorik dabillen On Manuel'en ezin-etorria, Galarraga'tar Juan Mari'k adierazi ondoren, Arrinda'tar Anes'ek, GURE AITA otoitzarekin eman zion asera 35 bazkideko batzarrari.

Egitarau-arian, ara zer egin zan :

1.— Abendu'ko Batzar Nagusiaren agiri-irakurtze ta onartzea lenengo. —Eta, orduan, izendatutako Batzordearen arrastoan.

2.— *Uxola'k* : «Elkarte baten oiñarririk sendoena bazkidetza dala», esan zigun. Gaurkoz, 161 bazkide giñala kardaberaztarrok. Eta oietan :

- 99 gipuzkoar
- 33 bizkaitar
- 14 napar
- 10 arabar
- 3 Ipar-Euzkadiar
- 1 Leon'en bizi dana ta beste
- 1 Compostela'ko Gongotzai, Sukia jauna.

Baiña ba-ditugula, bazkide-batzarkide ziran aaztu edo bazter-tutako beste batzuek ere, kardaberaztarren berri ta liburutik iri-

txi ez zaizkietenak. Oiek, berriz gureganatzen, asi bearrean gaudela, noski, «gure Euskera makildu oni laguntzeko», bear-bearrezkoak zaizkigutelako.

Batzorde-billeran astindu zala bazkide berri billa asitze au eta iru bazkide sortu ere bai. Bakoitzak bat edo bi egingo ba'genituzke, arnas biziago bat emango geniokela Kardaberaz-Bazkun oni ta baita Euskerari ere. Egitan, landare berriak azitik jaiotzen bait dira...!

3.— *Moraiz'tar Mirentxuk*: Aldundi-Ordezkaritzaren bidez, eskeñi zitzaizkien irakurgai-liburu-zerrendatik aukeratutakorik, Mujika'ren Iztegia bakarrik eman ziotela ta gainetikoen ordeiz: Haranburu, Txillardegia... ta oietakoenak, eta, oien tartean, Urretabizkaia'tar Arantxa'ren liburuxka nazkagarri uts-uts bat, gainera. Obetoago jabetu al izateko, eskuetaratu ziguna: «Zergatik Panpox», ain zuzen. Au baztarturik zeukala, umetxoen eskuetarako egiten zana ez zalako. Eta gertatutako ori adieraztera Ordezkaritzara joan zanean, —Kardaberaz-liburuak obetoago zetozkiela, esanaz—, auxe da eman zitzaion erantzuna: «oiek danak salduta daude»...

Bosteun ikastoletan, ori bera gertatu zeikela ta izketa-azterketa bat sortu zan. Eta ara Manu'k ziona: Aldun-Ordezkaritza-batzorde orretako Odriozola ta Lardizabal'ek egindako ori salatzea ta gertatzen ari danetzaz Aldundi-buru, Aizarna jauna, jabetzea oso beartuak argitzen giñala, iñolaz ere.

Beraz, salaketa-idatzi bat Mirentxu'k berak Aizarna'ri, eskuz-esku, eramatea erabaki zan. Ta Latiegi'tar Bixente'k azaldu bezela, adierazteko, salaketa orretan esku artzeko, amabost eguneko epea ematen zala, Erriak jakiteko zeukan eskubidea ez oinpetzeko.

4.— *Garmendia'tar Juan Joxe'k*: On Manuel'en 6 ta 7'garren liburuak, —Kondaira D. ta E.—, Eguberri-ingururako, zabal-bidean, izanen dirala ta beste lau geiagontzako gaiak ere etxean zeuzkala.

Bazkideen artean, aurtan, zabalduko diranak: Gipuzkoako Martirioren bizitzak eta Euskerazaintza'ren «IDAZTARAU BATZUK» izango dirala.

Jakakortaxarena'tar Txomin eta biak joan zirala On Joxe Miel'en itzal billa, bigarren saioan, liburu argitalketarako diruskea asitzeko. Oso pozik izenpetu zizkiela.

Ondoren, *lenengo eskaritza saritu zutenen zerrenda* au eman zuan:

ARRASATEKO <i>Lankide-Aurrezkitegiak</i> : 78-	
7-24	150.000 lr., baiña
	25 liburu eskatu zituan, ordaintzat.
GIPUZKOAKO <i>Aurrezkitegi-Probinzialak</i> : 78-	
7-24	1.000.000 »
BIZKAIKO <i>AURREZKITEGIAK</i> : 81-XI-8	250.000 »
ARABAKO <i>Aldundiak</i> : 78-8-24	200.000 »
	Gaiñera, liburu bakoitzetik, 50 ale
	(%70'ko sal-neurrian). Ta oso ordaintzaille zintzoa dala.
GAZTEIZKO <i>Uribatzarrak</i> : 78-5-24.	200.000 »
	<hr/>
	Guztira (dirutan) 1.900.000 laurleko

Ezer eman ez zutenen zerrenda:

NAPARROAKO TA IRUÑAKO *Aurrezkitegiak* eta ango *Aldundi* ta beste *Erritar-Aurrezkitegiak*, erantzunik ere ez.

BILBOKO *Aurrezkitegiak*, *Aldundi* ta *Uribatzarrak* ere berdin. DONOSTIKO *Udaletxeak*: 78-3-19'an ezin zezakela. Ta 1981'an, Lekuona'ren Omenez bezela, liburu bakoitzetik 25 ale erostekotan.

Eta, oraingoz, *Aurrezkitegian* sartuta dauden diruak 734.420 laurleko egiten dituztela. Eta Gipuzkoako Foru-Aldundiak, —%50'an—, eramandako liburuen jasotzekoekin, —119.850 lr—, 854.279 *laurlekoetaraño* irixten gerala.

Baiña, dauzkagun idazkola-lanak diru asko eskatzen digutela ta, berriz ere eskatzeari ekin bearrean arkitzen gerala.

5.— *Garmendia'tar Martiñ'ek*: bazkideen sari ta liburu ordainketari buruz: Aurtengo urte-saria, gaur arte ordaindu dutenenak = 40'enak = 75.000 lr. izan dirala. Eta igaz, —1981'an—, ordaindu zutenak 144 bazkide izan zirala.

6.— *Gaztañaga'tar Jexu:'ek*: Guk zer egin izparringi, aldizkari, irrati ta ikustirradi bideetan? :

— Bide oietan, toki eskeintzera ez zaigula iñor etorriko. Zai ez egoteko.

— Gure liburu, lan-apur eta billeren aditzerak egin gentzakela, beroietan zulorik billatzen saiatzen ba-gera.

— ZER, PRINCIPE DE BIANA ta GOIZ ARGÍ aldizkari baratzak utsunekin eta langarik gabe dauzkagula, sartu nai izan ezkeru. Aldizkari oietan, kardaberaztarrok txoko jakin bat egin gentzakela, —erlijio-gai, Aita Santu-ibilli ta itzaldi, an-emengo erlijioen eztabaida ta gertakuntzak, euskal-kondaira ta abar., eta abar...

— Egunkari eta irrati-tako zenbait gauza ta jokaerak astindu ta eztabaidatu bear genituzke, noski.

— Idatz-lan laburrak ibiltzeko garaietan bizi gera ta, bein da herriz ere Zubikarai'k bezela euskera xamur-xamurrean, nai-ta-nai ez.

Gai orren itzalean, Ikustirradi saillekoen berri ugari eman zigun, ondoren, Azurza jaunak. Naiz Ikustirratia, naiz Entzun-Irratia, batuazaleen eskuetan arkitzen zitzaizkigula. Joxe Mari Otermiñ-ena baiño Euskera traketsagoarik ezin leikela topatu. Euzkadi-ko Ikustirratia-Zuzendaritza Mendiguren'dar Xabierr'i emanen diotela. Dana, erdal-albistak euskeratzeko trebe ez diranen eskuetan gendukala. Euskera-Ikuskera-Erakundea gertatzen ari dana Zubiaur'tar Josu dala, ain zuzen, batuazalea.

Manu'k: Bide oietan zerbait egiten sartzera beartuak ez ote geran egongo... Eusko-Ikustirratia, eguneko bi orduekin asiko omen zaigu. Eta ordu baterako euskeratze-lanak, —beste Ikustirratietan, 180.000 laurleko ordaintzen badira—, ez leizkela gau-erdiko auntzaren eztabaida izanen... Baiña, orrek gertakuntza sakon bat eskatzen duala...!

Zubikarai'k, orduan, beste gauzetarako bezelaxe, euskeratze orretarako ere «Euskaltzaindia'ren» B, —*Batua*—, titulua izatea» eskatzen duala Eusko Jaurlaritza'k. Eta orren agergarri, izparringi-puzkatxo bat luzatu zigun albistari. —Azkenik, *Gaztañaga'k*,

datorren larunbatean, 19'an, Euskerazaintza'k, Zarautzen, eginen duan Batzar Orokorra deitu ginduzten.

7.— *Agesolo* ez zitzaigun azaldu ta aren gaia ikutu gabe geditu zan.

8.— *Idazkariak* adierazi zigun beste euskal-erakunde-batzordeekin alkartasun bat egitea nola erabaki duan Batzordeak eta aietako batzuen erantzunen berri ere bai. Danon elkarkidea oso bearrezkoa, iñundikan ere, arnas-berritu batean osasuntsutzeko.

— Bazkide berriak sortutzea, danon eginkizuna dala; batez ere gazte-sail baten billa asi bear gendukela, neska-mutil taldeen billa... Bizi geran egun auek ori eskatzen digutela, noski.

— Kardaberaz-Bazkunean ainbeste praille-apaiz izan eta nolataz ez ditugun gure liburu-mai batzuek, eliz-atarietan, antolatzen...

— Eusko-Jaurlaritza, Jakintza ta Ezikuntza'ko bakalziñen euskera-bide kaxkarrak salatzeke aukeratutako batzorde-lanen berri, urrena: Lenengo billerako erabakia, naiz aukeratuta jaso, biguin xamarra iruditu zitzaiola On Manuel'i, eta Latiegi'tar Bixente'k, —aren aginduz—, iotakoa, —zorrotza, benetan—, bidali ziola On Manuel'i, baiña, gaixoaldiak ez diola, nunbait, amorerik eman, auzi ori erabakitzeke ta ez zeukala aren erantzunik.

Idatzi orren miaketa-gogoia azaldu zan eta irakurri egin zuan ta batzarrari ez gaizki iruditu...

9.— *Jakakortaxarena'tar Txomiñ'ek*, itz bitan, adierazi zuan, euskeraz eta erderaz *Batuari* eratu dion salaketa-epai bat. Batzarrak Bazkideentzat aurtengo Kardaberaz-Aldizkari bezela argitaratzea erabaki zuan.

10.— *Azken saioak*: a/*Karrera* jaunak, Gazteizko Alkate jaunna Umandirekin Euskera ikasten ari zala ta salaketarik onenak ekintzak ditugula, —gaiñera, iñundik igesirik gabekoak...— b/*Garmendia'tar Iñaxio'k*, Arrinda ta Zubikarai'en antzera, Erriarrentzat idazten ikasi bearra gendukela. Oienak, erritar-euskaldu-

nak oso errex eta gogoz irakurtzen dituztela. —c/ *Salbarredi'k*: Bera ere saiatzen dala, astero-astero, Napar-aldean, idatzpide orri eusten, EUSKO-ALDERDIAREN «Boletín Informativo»'an.— Ordua ere ba-zan eta batzarra bukatutzat utzi genduan.

Orrela izan zala, ziñezten du idazkari.

Sukia'tar Joxe Mari'k

IX

DONOSTI'TIK 1982'GO AZAROA'REN 29'AN

Ene bazkide-lagun:

Aurtengo II Batzar-Nagusia Abendua'ren 30'rako eratu du Batzordeak, bere Azaroaren 20'ko azken billeran.

Beti bezela, Tolosa'ko Iparragirre-Aretoan eta goizeko amaiketan izanen dugu.

Ez zaituztegu oitura bat betetzeagatik deitzen... Bizitza oitura baiño geiago da eta Kardaberaz-Bazkunak bizi egin nai du ta bizitza zabaldu.

Emen dijoakizuen Egitarau-azal oni, erantsi gure Bazkunari bizi-egarri leiozkean ainbat gauza... Denok gaude berritze baten bearrean... Osasun-zantzu ori izan dezala, beraz, aurtengo gure II Batzar-Nagusi onek.

Eta, Egitarau onetan, zerbait eskatzen zaizutenok, aal-egiñean, lagundu indar-berritze ori bazkideen artean sortzen.

Eta, ara, eratu den billera-Egitaraua:

- 1.— On Manuel'en Ongi-etorria eta, urte buruan il diren bazkideen izen-abizen eta aien aldeko otoitza.
- 2.— Batzarrerera etorritakoen eta ezin etorria azaldu dutenen izen-abizenak.
- 3.— Aurreko Batzar-Nagusi-agiriaren irakurtze ta onartzeak.
- 4.— Aurten egin diran bazkide berrien izen-abizenak, *Uxola'k*.
- 5.— Batzordearen egintz eta asmoak zein izan diran eta diren! *Idazkariak*.
- 6.— *Garmendia'tar J. J.'k*: a/ Kardaberaz-liburu argitaltze ta zabalkuntzak. b/ Diru-eskabideetako joka-bideak.

- 7.— *Garmendia'tar Martiñ'ek*: Bazkide-sari, liburu-salmenta ta ordainketen berri, Bazkun-ondasunen bideetan.
- 8.— *Moraiz'tar Mirentxuk*: Azken Batzar-Nagusiaren arrastoan, eskalorako euskal-irakurgai aukeratzeko bideetan gertatutakoa? Aizarna Jaunarekin izandako alkar-izketaren berri.
- 9.— *Latiegi'tar B'k*: «Euskaltzaindiari Epaiketa» erderatzearen berriak eta Bergara'ko Euskaltzaindi-Batzarrean Kardaberaz-Bazkunak izan zuan eskuartzearenak.
- 10.— *Gaztañaga'tar J'k*: GOIZ - ARGI'ren egoeraren berri.
- 11.— *Olazar'tar Martiñ'ek*: Euskal-Idazledi-taldearen bizitzekintzak.
- 12.— *Zubiri'tar Iñaki'k*: Euskerazaleak eta Euskaltzaindiak Bizkaierari eman dizkion amore-bideak.
- 13.— *Karrera'tar Joxe'k*: Gazteiz'ko bere Erakundearen bizitasunak. Eta *Urrestarazu'tar Andonik*: UDABERRIA, Arabako Euskerazaleetaz.
- 14.— *Akesolo'tar L'k*: Euskerazaintzaren egintz, izan-bideak eta, aolkularimaiko bezela, Eusko Jaurlaritzaren Euskerazale-ikuskizunak.
- 15.— *Oñatibia'tar M'k*: Euskal-Telebista ta Irrati-arietako gorra-berak.
- 16.— *Galde-erantzunak*: a/ Batzar-Nagusi *gaietan*, dauzkagun kezkek... b/ *Retolaza'tar J. A.'ren* «El Euskera en la enseñanza de E.G.B.» (Egin - 16-XI-82).

Orretan, bazkide orok alkar ikusteko, gogo betean, agur dizute idazkari zuen adixkide.

Sukia'tar Joxe Mari'k

1982-XII-30'KO KARDABERAZ-BAZKUNAREN BATZAR-NAGUSIAREN AGIRIA

1982-XII-30'an, goizeko amaiketan, eman zion asiera Kardaberaz Bazkunak bere Batzar Nagusiari. Eta, zabaldutako egitaraurian:

- 1.— On Manuel'en ONGI ETORRIA eta, urtearen buruan, idadako bazkide: Galarraga'tar Luis Mari, Estonba Imanol, Aldanondo Jesus eta Zipitria Elbira'en alde GURE AITA-otoitza.
- 2.— Batzartu giñanak 54 eta Moraiz'tar Mirentxuren adierazmena: bere ama gaixoa zaindu bearrean gertatzen zala.
- 3.— Aurtengo Garagarrillaren 12'an izandako Batzar-Nagusiaren agiria irakurri ta onartu ondoren.
- 4.— *Uxola'k* eman zion Batzarrari aurtengo urtean sortutako bazkide berrien izenak, —oietan bat Aldundiko Lendakari Aizarna jaunarena—, eta baztertutako bazkide batzuen poza ere bai, egin zitzairen arrera-bideetatik.
- 5.— Ondoren, *Idazkariak* azaldu zituan Batzordeak, bere ille-roko billeretan, jaulki zituan asmo ta gogoak: bazkide baztertuei egin zitzairen eskutitza, bazkideen artean idazle leizkenei egindakoa eta bazkide berrien billa asteko eratu dan aurre-idaztia (Kardaberaz Bazkunaren berri ta naiak adieraziz); —Liburu-argitaltze-bide urraketan, liburu-salbideetan, Batzar Nagusi eraketan, amaika Euskal-Erakundeekin, elkarte-batzorde baten ondoren, emandako pausoak; eta, azkenik, Kardaberaz Bazkunari indar-berritze bat sortzeko asmoetan derabiltzkiten idazle-talde sortze-bideak. Taldekatzeko ori, idatzgaien bidean joango danez, gauzak bear diran eran zuzentzeko, bazkide oroei asmo auek beste eskutitz baten bidez azaltzera erabaki zan Batzarrean. Gaiñera, Gipuzkoako Aldundiak aii esku-zabal daukan laguntza euskal-orrientzat, nola eratu ere aztertzeko agindu zitzaion Batzordeari.
- 6.— *Garmendia'tar J. J'k*: a/ Liburu-argital-etxeekin eukitako

ezaupideak ez digutela laguntza obegorik eskeintzen eta leengoe-kin jarraitzea iruditzen zaiola; b/ Diru-eska-bideak eraturik dauzkala, diruak lurra jo baiño leenago, ate-joka asteko. Milloi ta erdira igotzen dala liburu bakoitzaren sorketa. Urtetik urtera garestitzen dijoazkigula eta leen-bait-leen lan auek aurreratzea on litzai-gukela, iñolaz ere. Orregatik igo zala igaz millatik bi milla laurlekotara bazkide-saria. Oraingo diru-eskea On Manuel'en liburu auek, —aterata dauzkagunak—, emanez, jai auen ondoren astekotan dago-la. On Manuel'en liburu auek Etxenike ta Labaien jaurlariei bial-tzea ere ez litzakela gaizki egongo, aren omenaldirako laguntza-kezka apur bat sortzen zaien ikusteko. Bazkideen artean ere ba daudela diru-indar gutxikoak ota oiei kosta-sarian ematea ere la-guntza bat arkitzea lizakela. Bestalde, 200.000 lr. saldutakoenak ere jasotzeko dauzkala, oraindik.

7.— *Garmendia'tar Martiñ'ek*: Kardaberaz Bazkunaren aur-tengo diru gora-berak onela izan dirala:

110 bazkide=2.000 laurlekoko enak	220.000	laurleko
7 bazkide= 1.500 laurlekoenak	10.500	laurleko
2 bazkide= 1.000 laurlekoenak	2.000	laurleko
Sal dutako liburuak eman dutena	657.245	laurleko
Diru-irabaziak (interesak)	865,65	laurleko
<i>Aurreko urtetik zetorrena</i>	689.520'75	laurleko
<u>Danera</u>	<u>1.580.131,40</u>	<u>laurleko</u>

ORDAINKETA EDO GASTUAK

Cassette ta liburuengatik Umandi'ri ordain-duak	142.400	laurleko
Kardaberaz 10= «IDATZTARAU BATZUK».	32.600	laurleko
Martirien liburuak	30.000	laurleko
Ofizinararen urteko errenta	24.000	laurleko
Liburu-karraioak, sellu, eskutitz, errenbolso ta abar	82.230	laurleko
Inpuestoa	138,50	laurleko
<u>Ordainketak</u>	<u>311.368,50</u>	<u>laurleko</u>

SARRERAK	1.580.131'40	laurleko
IRTEERAK	311.368,50	laurleko
<u>GELDITZEN DANA</u>	<u>1.268.762,90</u>	<u>laurleko</u>

8.— *Moraiz'tar Mirentxu'ren orde*z, Uxola'k agertu zion Batzar-rari Aizarna'ren erantzuna, Ikastoletako liburu aukeratuen tru-kaketari buruz: Bera prest dagola alegiñak egiteko, baiña, tartean zeuzkatela zakurrak eta guretakorik ez zala azaltzen iñor lan-toki oietan...

9.— *Latiegi'tar B'k*: «EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA», 2.000 ale atera zituztela. Oietatik, 800 bat saldu zirala. Eta, saririk gabe, zabaldutakoaz gaiñera, 500'en bat ale gelditzen zirala, orain-dik saltzeko. Ondo artua izan dala. Leenago ezagutua izan balitz, ez ginduztela ainbeste aurkalarari izanen.

«EL DIARIO VASCO»'ko zuzendariak: «creo que el futuro es de Vds.» eta «el problema está todavía sin ventilar», esan duala. Baiña etsairik ere izan duala epaiketak, eta danetan areena erren-teriar Mitxelena, ain zuzen. Alaz ta guztiz ere, iñork ez duala ezer idatzi, pratziskotar batek ezik (Pagola'tar Manolo'k) «ero batek egindako saltsa dala». Danak ao batez diotena: «errez» irakurri eta ulertzen dutela epaiketa ori. On Manuel'ek: liburu au be-netan zoragarria gertatu dala eta dion guztia egi utsa, ain zuzen.

Askorentzat naiz egi-ezagunak izan, «esan bearrak ziran», ez dakitenak ere jabetu ditezen.

Erderazkoa, orde, ez dala berdiña izanen. Izkuntza batetik bestera aldatzeak beste berezitasun bat ere ezartzen diola. Bi al-diz luzeagoa izango dala. Latxaga'k Amerikati'k eskatzen zion be-zela, Bergara'ko Euskaltzaindi-Batzarreko ezta-baida-burruka ere erantsi zaiola. Liburua, egitez, egiña daukala. Iru-lau orrialdetxoko luzamen bat erastea hesterik ez zaiola palta bukatzeko. Oarrak ez dizkiotela orri beretan erantsi eta ori zuzentzeak ere beste illabe-tetxoren bat luzatu dezakela bere agerpena. Erderazkoa Euskeraz-koa baiño ondotxoz ere gogorragoa gertatzen dala.

10.— *Gaztañaga'tar J'k*: Zorrez jantzirik egon arren, GOIZ

ARGI, illean bein, ateratzen astekotan dagola. Foru-Aldundiak erdia ta Euskerazaintzak 100.000 lr. ordaintzeko itxaropenean.

11.— *Olazar Martiñ'en* gaia ez zan ikutu, etorri ez zalako.

12.— *Zubiri'tar I'k*: Beren ikastaroak aurrea diajostela. «ZER» ere zer esanik ez, Aldundi eta bi Aurrezkitegien laguntzakin. Uda-Ikastaroan ere sariketa bat antolatzea iritxi naiean dabilzala. Baiña Euskaltzaindiagandik bizkaieraren argitasun aundirik ez dala agiri. Ala ta guztiz ere, asi dala bizkaiera azaltzen. Bere aditzaren bideak Otsaillarako urrateko usteetan. Etxenike Garaikoetxea'ren mendeko ta au Mitxelena'ren oiñarripean arkitzen omen dirala.

13.— *Karrera'tar Joxe'k* GAZTEIZKO ERAKUNDEAREN zirrirtu guztien berri zearo azaldu zion Bazkunari. Orain dirala sei urte jaiotako ametsa: Gure Erriari iritxi zitzaion amilketa, naiz gizarte naiz Jakintza ta naiz Erlijio bideetan ikusita, Euskera ta Euskal-Jakintza bideetan, neska-mutiko larriekin zergatik ez ekin on-bideak irikitzen?...

Amilketa ari euskarri billa, 1977-78'an, 408 ikasleekin asi zuten ikastaroa, urtean baiña urtean goorago igotzen joan dala. Orain, Eusko Jaurlaritzak ikastetxetako irakasleei jarri dizkien laguntzak, naiz ikasleak gutxitu, aurten ere, Udaberriaren arnasa 2.080 ikasleetaraño irixten dala (barrungo eta kanpoko ikastolen artean).

Orrekin batera, beste bi erakusketa ere ornitu dituztela: 1977-78'an, 25 ikasleekin asi zuten «solfeoak», gaur egun, 260 ikasle dauzkala. Eta oien artean: 36 esku-soñu-jole, 14 txistulari eta 25 piano-ikasle.

Iruigarren ikasketa, DANTZAK izan dirala: 50'ekin asi ta 63'ra igo dirala. Ori izan dala, orain arteko, saioa. Ta guzti ori, Karrera'ren itzalean, bi lagun sarituekin eraman izan dutela. Gaur orde, gaurko erari erantzuteko, Bazkun bat sortzea erabaki dutela, saill geiagotan eta gizartetasunagoan erakusketa-lana aurrera eramateko.

Bazkun orren Araudiaren berri ere azaldu zuan. Beraz, bigarren saioan sartzen dirala ta itxaropen onarekin, naiz eta bide berriak berena izan bildur-ikara.

Ekintz-berritze onetan, artu-eman osoan dabilzala Euba'ko pasiotar Aita Fermin Iraolagoitia'rekin. Onek ere asmo berdiñak dabilzkialako Bizkaiko ikastolak sututzeko.

Kardaberaztarron artean ere langille-berezitasunik ez zaigula palta eta idatz-talde sorketa eta beste gauza geiago ere egin genetzakela, bildurbideak langatu-ta aldapari eltzen asten ba-gera.

Urrestarazu'tar Andoni'k: Udaberria-aldizkaria Araba'ko Euskerazale ta Udaberrikoak sortzen dutela. Gaiñera, ikastoletako irakurgai bezela ele berri bat azaltzeko Kardaberaz'en iritzia eskatu zuan. Zeiñek ukatu?...

4.— *Akesolo'tar L'k*: Beren aoulkularitza goitik jaulkitakoa dutela: iritzia besterik ez dietela eskatzen: nolako Euskera ibilli Irrati eta Ikus-Irratian eta abar., baiña beste eskubide eta egitekorik gabe. Erabakiak danak Eusko Jaurlaritzak berak artzen dituanak izaten dirala. Batzorde-iraunkorren bat ere sorturik omen dutela.

15.— *Oñatibia'tar Manu'k*: Euskal Telebista ta Irratia *batua* utsean ari dirala, berriak izan, naiz pelikulak.

Baiña Kardaberaztarrok laixter izanen dugula gure Euskera errikoari ateak irikitzeo aukera. Alegia, Gotzaiak ados ditugula lau orriko asterokoa kristau-gaiekin argitaratzen asi nai ba degu: saill bat erdera utsean eta bestea Euskera utsean. Eta Euskalerrri osoan zabaltzeko izanen dala.

16.— *Galde-Erantzun bidean*, Batzordearen kezka bat azaldu zuan Idazkariak: Batzar Nagusi-dei eta gaietan, kardaberaztarrok ez ote geran beste erakundeen larretan sartzen?... Batzarraren erantzuna, aurrera ere orain arte bezela jarraitzeko.

Iru orduko billera luze au, orrenbesterekin bukatutzat eman zuan Batzarrak.

Izandakotzat azaltzen du Idazkari.

Sukia'tar Joxe Mari'k

X

TOLOSA'KO IPARRAGIRRE-ARETOAN ETA MORAIZ'TAR MIRENTXU'REN IDAZKARITZAPEAN, SUKIA GAIXORIK DEGULAKO, KARDABERAZ BAZKUNA BATZARTU DA

29 BAZKIDE BILDU DIRA

Lekuona jaunak, gure ildakoen alde otoitz bat egiñez, Batzarrai asiera eman dio.

1.— Azkenengo batzar-agiria irakurri ondoren, On Manuel Lekuonak, Jose Maria Sukia eskertu bear dala egin duen, batzar-agiri eder eta zeatzagatik.

Onartua izan da.

2.— Martin Garmendia'k diruen gora-berak agertu ditu.

3.— Jesus Gaztañaga'k, Eusko Ikaskuntza'k, On Manuel Lekuona'ri egindako omenalditaz itz egin du ta ona zer esan zigun :

«Lekuona ta Etxabeguren'dar Manuel, gure Kardaberaz onen sortzaille ta buru, ta gañerako dugun jaun oni aste berean omenaldi bi egin zizkiotela ta egin genizkiola, esan bear.

Batetik Gipuzkoa'ko Forudun Aldundiak, urrezko domeiña dalako eman ez, Gipuzkoa'ko seme berezi edo seme kutun izendatu zuan jorrailaren 21'ean.

Une artan Forudun Aldundi'ko buru zan Aizarna'tar Xabier jaunari esker, beste erakundeen artean, Euskerazaintza'k ere artu zuan deia.

Onela gauzak, mai-buruan jaun auek guztiak egon ziran : Barandiaran'dar Jose Miguel jauna, Eusko-Ikaskuntza'ren ordez ; Labaien, Jaurilaritzan Kultura-sailleko buru izana ; Donosti'ko Go-tzaia : Setien jauna ; Euskalerrri'ko Unibersidadea'ren eta Euskal-

tzaindia'ren ordez : Mitxelena; Oiartzun'go alkatea : Irigoien'dar Iñaki; Kardaberaz-Bazkuna'ren izenean : Garmendia'tar Juan Jose ta Euskerazaintza'ren izenean : Zatarain'dar Ambrosio jauna.

Bigarren, EUSKO IKASKUNTZA elkarteak egin zion beste omenaldi bikain bat jorrailaren 23'an, ain zuzen ere «Victoria Eugenia» antzoki apañean.

1'go : «Eusko Ikaskuntza'ren idazkariak egin zuan omenaldia-
ren aurkezpena, aspalditik zor zitzaion omenaldia zala esanez. Bes-
te omenaldi asko egin dizkiotela Lekuona jaunari, baiña Euskale-
rri osoarena falta zala ta egun artakoak orixe izan nai zuala.

2'go : Akesolo'tar Lino jauna mintzatu zan bigarren, gure «On Manuel» en zenbait lan-alor txalotuz : erri-senak eraginda, erriko oitura biziak eta abestiak, eta bertsoak e. a. jasotzen maixu izateaz gaiñera, bertsolaritza aztertu ta jaso duala beste iñork bai-ño leenago ta gorago.

3'go : Mañarikua'tar Andres jaunak, Lekuona'ren leialtasuna azaldu zigun : Elizari, apaiztasunari, erriari, lanari, adiskidetasunari ta bere buruari izan dien leialtasun zintzoa goraiatu zituan. «Gizon biozti ta neurritsua» esanez bildu zituan bere goralpenak.

4'gn : Zumalde'tar Iñaki jaunak, Lekuona ta kondaira-gintza aipatu zituan. Kondaira alorrean egindako lanak aipatuz gaiñera, arrizko ta paperezko agiriak alde batera utzi gabe, bere sena bereziak argi eginda, bestelako aztarna ta eldu-lekuak ere oso aintza-
kotzat artu izan dituala Lekuona'k bere kondaira-lanetan. Eta ez du berezitasunik eta meriturik txikiena.

5'gn : Lekuona'tar Juan Mari jaunak, —illoba apaiza ain zu-
zen— bere osabaren literatura-gintza azaldu zigun : olerkiak, ume-
olerkiak, antzerkia, errikantak e.a. Umeentzako lanak goraiatu
zituan bereziki.

6'gn : Arrazola'tar Maria Asuncion lekaimeak, Lekuona ta er-
ti-lanak aipatu zituan : ez jaun onek berak egiñak, aztertuak eta
ikertuak eta lilluramenez aogozatuak. Eta, jakiña, maixukiro beste
askori adierazi ta erakutsiak. Gai ontan elkarrekin egindako ibi-
lli asko aipatu zituan lekaimeak, Gipuzkoa'ko elizetako erti-lanak

biek elkarrekin aztertu bai-zituzten. Zorateraiñoko atsegiñez be-
giratu ta ikustatu oi dituala Lekuona'k zenbait erti-lan eder.

Urrena, erakundeak agertu ziran beren opariak egiñez. Eta
lenengo lenengo Araba, Gipuzkoa ta Bizkai'ko Aldundien ordez-
kariak agur egin eta beren oroigarriak eman zizkioten, eta iruen
ordez eta izenean, Gipuzkoa'ko Aldun-Buruak itz egin zuan.

Auen ondoren, EUSKERAZAINTZA'ren ordez, Gaztañaga'tar
Jesus'ek itz batzuk irakurri zituan eta ondoren bandeja bat eman
zion.

Azkenik, Jaurlaritza'ren ordez, Eziera-salleko buru dan Etxe-
nike jaunak artu zuan itza ta Lekuona jaunari eskerrak eman, bu-
ruru duan lan aundiagatik eta ain errizale ta langille izan danez,
bere eredutzat artu nai duala.

* * *

Eusko Ikaskuntza'ren izenean, Barandiaran jaunak, «Manuel
de Lekuona» izeneko saria sortu zutela ta lenengo saria Lekuona
berari ematen ziotela, aitortu zuan, Remigio Mendiburu'ren irudi
bat emanez : zugaitz bat dirudi, Gernika'koaren adierazpena ote da?

Urrena, Euzkadi'ko Orkesta deritzaionak, musika-saio bat es-
keñi zion. Eta ondoren, lagunarteko bazkaria «Maria Cristina» ja-
tetxean.

Aipatzekoa da noski, agertu ez ziranen aldetik ere artu zitua-
la gorazarreak eta agurrak : Garaikoetxea lendakaria, Makua al-
dun-burua, Labairu elkarteak, Erri-lagunak, Andoain'go udala, Er-
nani'ko Urumea ikastola, Nafarroa'ko Aldundi'ko euskera-serbi-
tzua, Zarautz'ko udala...

Basarri bertsolari aundiak bertso bikaiñak abestu zituan baz-
karitakoan eta itzaldi sutsua, sakona ta salaketa zorrotzez betea
egin zuan.

* * *

E. Zubillaga'k galdetzen zuan : «zergatik ez ditu iñork, Base-
rri'ren itzak aipatu?».

4.— Manu Oñatibia'k esan zuan, Euskerazaintza'k iru eskaera egin dituala, Bat : Felipe Gonzalez'eri, erantzuna Lino Akesolo'ren izenean izan da, Bi : Carlos Garaikoetxea'ri ta Iru : J. J. Pujana'ri; bi oiek ez dute oraindik erantzun.

E. Zubillaga'k zion : «Zergatik kanpora eskatu? etxetik asi bear da». Idazkariak, Jose Maria Sukia'k, bere gaixotasunak ez diola aukerarik eman ta orri bat bidaldu du, bertan onela dio : «Euskerazaintza'k, zergatik ez adierazi Euskera-Tituluetakoa azterketak? Ez al degu bizi geraden aditzerarik eman bear, gure Euskera indartzeko bide-urraketarako presto gaudela adieraziz?...».

Eta Eusko-Jaurlaritza'ri, zergatik ez dirurik eskatu? Eta eman-go ez ba'liguke, zergatik ez erantzun : eskutik ogeitamaika egingo diogula? Errenta-Sariari kendu ta Euskerazaintza'ri eskua luzatuaz?

Abendu'ko Batzar-Nagusi'ko erabakia —idazle-talde eraketa— aurrera eramateko. Egiteko oni buruz, ez al gaude beartuak, erabide batzuek benetan aztertzerak? Bakoitzak dauzkanak gorde ta, danok batera berari elduaz?

5.— «Eliz-orria» Manu Oñatibia'k esan du aurrera dijoala. Iñaxio Oñatibia'k lan egingo duala; Otxoa ta Unziti jaunak, lau orri oiek nola joango diran esango dute, «komiks»...

Nola banatu? eskuz; seglarrak eramango dutela; kale bakoitzeko arduradun bat artuaz eta al dala, etxe bakoitzeko bat.

Dirua : nola bildu? Erri bakoitzean, batzorde bat, nagusi apai-za dala; dirua biltzeko, kutxa jarri.

Valverde'k egingo du, iru margotan. Erderaz eta euskeraz izango dira. 100.000 ale euskeraz. Eusko Jaurlaritza'k lagunduko du.

6.— Jesus Gaztañaga'k, esan du, Elbira Zipitria'ri egingo zaion omena, gerorako utzi dala, aurrekin egin bear dalako.

7.— Manu Oñatibia'k esan du, Euskerazaintza'k ikurra «E» aterako dula.

8.— J. J. Garmendia'k bere iritziak agertu ditu :

Kardaberaz Bazkuna irauñ eta aurrera eramateko oiñarri batzuk bear dira : au da : batetik, *legezkotu*; bestetik, *toki berezia erosi*. Tokia ikusi du, etxe-jabearekin itz egin ere bai. 6.000.000 pzta. eskatzen ditu.

Nola ordaindu?

1 : *Donosti'ko Aurrezki Kutxa* Xabier Alkorta'rekin, (zuzendaria) itz egin du. 4.000.000 pzta. aurreratuko lituzke 10% kenduaz, orretzaz gaiñera, zerbait emango dute.

2 : *Gipuzkoa'ko Aldundia* Lekuona jaunaren idaztiak argitaratzea ordainduko duala, Xabier Aizarna'k agindu du.

3 : *Bazkideak* : Nola ta zenbat aztertu bear da.

9.— Artu diran erabakiak : letraduarekin itz egin ondoren, bazkideen artean, batzorde bat sortu, estatutoak ondo aztertzeko, lengo zaarrak oiñarri artuaz. Ondoren batzar berezi bat egin.

Batzarkideek asmo oiek onartu dituzte.

Besterik gabe, gaurko Batzarrari amaiera eman zaio.

Tolosa'n, 1983'ko garagarrillaren 30'ean.

Idazkari ordezkoa.
Moraiz'tar Mirentxu

KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arrinda).
- 4.º KARDABERAZ - 2
- 5.º KARDABERAZ - 3
- 6.º AMEZKETA'KO PERNANDO
(A. Albisu).
- 7.º KARDABERAZ - 4

-
- 8.º PAKEAREN ERREGIÑA - MEZA
(J. Pildain).
 - 9.º 20 IPUI ETA ANTZERKITXO BAT
(A. Albisu Ayerdi).

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970 an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean
b) Kristau-pentsakera barruan (ezi zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume) milla pta. ordainduko dute sarrerako ta beste milla urtero. Diru oiekin ateratzen da KARDABERAZ BILDUMA, bazkideentzako ezean.

Arpidedunak (bazkide nai ez dutenak) liburuak artzera beartzen dituzte beuren buruak.

Bazkide naiz arpidedum egiteko nora jo?

Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Tolosa'ra: Juan José Garmendia Arcelus
Técnicas de Difusión.
San Francisco, 1.
Apdo. 83.

